



Eta tira eta tunba diskoa

Karlistak eta liberalak bertso-gerran

**Imanol
Oruemazaga**
Frankismoan
Zamorako
kartzelan
izandako apaiza

**Ibilaldiko
ikastolak**
Herbehereetako
ikasleekin trukea
inglesa ikasteko

**Juan Mari
Ollora, EAJ**
«Bilduren
lehertzearen
eragina jasango
du EAJk»

Islandia
Herritarrek
ez dute bankarien
zorra ordainduko

**Irigoienazpikoa
etxea**
IKTak eta
hedabideak
behatzeko
egitasmoa



► Santiago Alba Rico

Ezkerrak, bere adierazpen eta molde anitzetan, azken urtetan ez ditu bere historiako unerik goxoenak bizi; kapitalismoari loturiko baloreak nagusi diren Europa honetan bederen. Santiago Alba Rico filosofo eta idazle madrildarrarekin solastu gara eta azaldu dizkigu bere ustez zer egin beharko lukeen ezkerrak mende honek ekarriko dituen erronkei aurre egiteko.



► Laboa zubigilea, eten ez diren sei sokak

Herrikoi bilakatu diren kanta sorta ederraren egilea da baina mitoa bada ez da soilik horregatik. Tradizio eta traizio hitzen artean dagoen muga lausoan ibili zen musikari handia, funanbulista bailitzan. Eta oreka deskubritu zuen. Horregatik izango da musikari gazteen artean horren miretsia. Musikatik harago bestelako diziplinetan inspirazio iturri izan da: dantza, bertsolaritza, eskultura, pintura...



► Txori Mugariak

Hegoa eta Iparra izan badira?

Maialen Lujanbio, Xabier Erkizia eta Stéphane Garinen proiektu musikal berria. Migrazio munduaren muga geopolitikoak arakatzea du helburu.



Azaleko argazkia:
LEJARRETA
(LOIOLAKO JESUITEN
ARTXIBOA)
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harreza: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko maiatzaren 22a, 2.277. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Martin Irigoien:** «Antzerkia plazan ikusten dut, bizi-bizi eta jendearekin 'puching ball'-ean». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Eta tira eta tunba diskoa.** Baioneta errimatuak *karliberalen* artean. URKO APAOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Imanol Oruemazaga Baseta:** «Ahotsa altxa genuen, herrian eta gotzaindegian». MIKEL ASURMENDI / 10

Gaiak

- **Kabigorri.** Kultura eta eztabaida trago artean. MIKEL GARCIA / 15
- **Ibilaldiko ikastolak.** Herbehereetarrekin ingelesa praktikatzan. ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE / 18

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Barre edo negar. BEÑAT SARASOLA / 22
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 23
- **Aldaketa garaia?** GORKA MORENO MARQUEZ / 24
- **Txandan** Hitzaurrea. IGOR ESTANKONA / 24
- **Linbotik atera.** ENEKO OLASAGASTI / 25
- **Hiruko txikian** Bildu. JOXEMARI OSTOLAZA / 25
- **Bertso berriak** Kantauri bazter honetan. IMANOL LAZKANO / 26

Erdiko kaiera

- **Soinumapa.** Galduko ez diren hotsak. LANDER MUÑAGORRI / 27
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Juan Mari Ollora:** «Penduluaren garaia agortu zaio EAJri». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Finantza krisia.** Konponbide iraultzailea Islandian. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Irigoienezpikoa egitasmoa.** IKTak eta hedabideak behatzeko gunea. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Garbiketa lanetan ari diren emakume ikusezin horiek. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Antropozemoa.** JOXE IRIARTE, *BIKILA* / 50



“Antzerkia plazan ikusten dut, bizi-bizi eta jendearekin ‘punching ball’-ean”

Mattin Irigoien | Teatrogilea

Bizitza ez baita antzerki hutsa.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Museoko pieza zara, Mattin: antzerkia idazten duzu, eta euskaraz!

Anti-museo ari gara ustez. Nik antzerkia plazan ikusten dut, bizi-bizi eta jendearekin *punching ball*-ean. Hilzorian delako hizkuntza honen komunikazio funtzioa agian, are gehiago, bizi mugimenduari txertaturik ikusten dut gure antzerkiaren funtzioa.

Euskarazko antzerkiaren egoera, ordea, dramatikoa da oso.

Gutxiengoan gara euskaldunak, eta hori onartuz geroz, bizitzea balio duten anitz esperientzia izateko bidea ematen du. Hau ez da drama, bizi behar den zerbait baizik. Hil artean, bizi.

Ez da izango bankuen interes faltagatik: BBK eta Kutxa daude bi antzerki sari nagusiren atzean.

Berek jakinen dute zendako egiten duten. Eni, sariak ongi etorri zaizkit lan honetan jarraitzeko etxekoei sobera gosta gabe, dirutan erran nahi dut. Lehenarekin hamabost urtez iraun nuen, bigarren honekin, agian beste hogeiz iraunen dut...

Hori da: umorea oroz gain, zure antzerki lanean bezala.

Erraten da komiko onak drama duela oinarrian. Pentsatzen dut baietz, baina drama hutsean patetikoak izateko beldurrez edo, beti umorea hautatu izan dut. Egia erran ez dut hautatu, hola jin zait.

Iparraldean dugu antzerki kultura handiagoa; zer irakurketa egin hortik?

Denboran, apezek gazteria kontrolatzeko tresna gisa baliatu dute asko antzerkia, aber-tzaleek gero, beren ideien hedatzeko... Gaur, ni bezalako sinesgabe ez-lerrokatu batzuek egiten dugu, nehork ez daki zendako.

Antzerki obra idatzi eta tiraderan gordetzeko!

Idazterakoan, taularatzeko idatzi dut ia beti. Bat edo beste izanen ditut kutxetan, erretze-ko atxikiak, arrunt txarrak direlako. Bestela, egia da hemen antzerkia idaztea ez dela aski, taularatzen lagundu behar da ere.

Nola, zure euskara ez bada ulertzen?

Denek badugu bide bat egiteko bestea ulertzeko, eta ez bakarrik periferiako euskaldunek. Nitarik zutara edo zutarik nitara, naski, ber distantzia da.

Anaiak egin du: antzerkian hasi eta Euskadiko telebistan egun!

Gillome betiko gure antzerki maisua izanen da. Hain maisu handia non, nehor ohartu gabe, beti ari den. Pentsa, minutu batek oreka balio duelako ilusioa saltzen digu egunero.

Eguneroko teatroa, noski.

Ezin gara beti zinean, finean eta minean ibili. Burmuinak deskonektatzen daki, eta biziko antzezpena burua ez galtzeko defentsa hesia dugu. Aldiz, antzezpena beti ihesean ibiltze-ko bada, gaitz doble. ■

Eta tira eta tunba diskoa

Baioneta errimatuak *karliberalen* artean

Joseba Tapiak *Eta tira eta tunba* diskoan Bigarren Gerra Karlistako bertsoak musikatu ditu. Ganbaran aspaldi ahaztuta zeuden koplak dira: “XIX. mendeko gertakari garrantzitsuenetakoaren lekukotza ezinbestekoa”, trikitilariaren esanetan.

URKO APAOLAZA

“HERRIAREN AHOTAN zatika baino iraun ez dutelako”. Haor Tapiaren hitzak bere *Eta tira eta tunba* (Zakurraren biolina, 2010) diskoa promozionatzeko testutxoan. Hori baino esaldi borobilagoak esan izan ditu, gerra karlistetako bertsoak musikatzeko arrazoiak azaltzerakoan, baina gu arestikoan plantatu gara, eta kolkorako galdetu dugu: zer zati iritsi zaizkigu, bada, koplak eta melodia horietatik? Herri memoriaren nongo txokotan daude ezkutatuta? Estribilloetan mozorrotu al dira karlisten obsesioak? Espresioetan, liberalen ironiak?

Ofizial karlistak
Bigarren Gerra
Karlista ondorengo
irudi batean.

Bigarren Gerra Karlistaren mamuak

Arturo Campionek ederto deskribatu zuen Bigarren Gerra Karlistak (1872-1876) euskaldunen artean sortutako triskantza: “*Cuando tiene lugar entre los que habitan un mismo suelo, la guerra es abominable*” esan zuen. Julio Medemen *Bebiak* filma berriz ikustea nahikoa da igartze-ko zertaz ari zen Campion. Lehenengo eszenetako odol, larruazal eta bolbora usainak etengabe segiko die hurrengo belaunaldiei pelikularen amaiera arte. Horixe gertatu zitzaion Euskal Herriari, gerra karlistaren mamuak pertsegitu ziola urte askoan eta orain-

R. LOPEZ DE HEREDIA BODEGA





Musika bandek bultzada handia izan zuten XIX. mende amaieran eta Joseba Tapiak kontuan izan du hori disko berria orkestratzeko. Irudian, Donostiako musika banda 1868an, Raimundo Sarriegik zuzenduta.

dik ere haren itzala gainean dugula: “Gure zokoak eta gure historia foruen eta kausa karlisten oroitzapenez beteak daude” esan zuen Joseba Tapiak diskoaren aurkezpenean. Gertaera lazgarri horrek izan du nolabaiteko islarik euskal kantagintzan, baina sekula ez du behar besteko oihartzunik izan. Horregatik sikiera, Tapiaren lanak merezi du aitormenik.

1868an liberalek Isabel II.a kanporatu eta Madrilén politika laiko eta aurrerakoiari ekin ziotenean, Euskal Herrian ordura arte nahiko isilik zeuden karlistek indarra hartu eta erlijio katolikoaren defentsan hasi ziren mobilizatzen, Karlos erregegaiaren inguruan: ...aitaren seme irtengo gera Karlos Borbonen soldado / bandera beltzak jarri ez gaitzan lege zikinen esklabo. 1872ko apirilaren 21a arte ez zen matxinadarik izan ordea, lau urtez tentsioak eta ezinikusiak elikatu zituzten beraz. Gerrilari karlistek segituan bereganatu zituzten Euskal Herriko eskualde gehienak, hiriburuak eta zenbait herri koxkor izan ezik. Espainian Errepublikak aldarrikatzeak are gehiago piztu zuen katolikoaren sua eta 24.000 txapelgorriz osatutako armada iza-tera iritsi ziren. Baina Madrilgo “alborotuak” amaitu zirenean, behin Alfontso XII.a berrezarrita, liberalen armadak —profesionalagoa eta hornituagoa— problemarik gabe zapaldu zituen karlista insurrekzioak:

*Karlistak irten giñan fedearen alde,
fanfarroi gerrarako giñanak alegre;
alferrik lan eginda umilduak gaude,
gure enpeño hoiek jua dira debalde.*

**Bertso-paperak usatuz, sekulakoak
eta bi esan zizkioten elkarri
karlistek eta liberalek, herri
hizkeran dauden baliabide guztiekin**

1876ko otsailean Karlosek muga igaro zuen eta urte horretan bertan abolitu zituzten foruak Canovasen ekimenez. Milaka hildako eta erbesteratu zenbatu ziren lau urtean, gerra totala izan baitzen hura, eta arlo guztietan ireki ziren lubakiak. Zentzu horretan, alde bietako propagandak berebiziko garrantzia izan zuen, eta herri alfabetatu gabea, bertso-pape-
rak arma ikaragarria bihurtu ziren.

Antonio Zavalaren lana

Juan Ignazio Iztuetak zioen “paper moldizkidatueta” zabaltzen zirela jadanik XVIII. mende amaieran bertsoak. Baina bertso-paperen leherketa XIX. mendean gertatu zen, iri-
tzi publikoaren erreferentzia

nagusietakoa bihurtzeraino. Baroja, Osés eta beste zenbait moldiztegitan inprimatu eta itsuen nahiz besamotzen bidez zabaltzen ziren. Tamalez, historialariek apenas hartu dituzte aintzat oraintsu arte. Euskal literaturaren anaia “arrotea”—Gorosabel kronistak erabilitako adjektiboa— izatearen gaztigua jaso du bertsolaritzak historian zehar.

Beharrik gure herri honetan hainbat per-
tsonak bertso-paper horiek bildu zituela, baita Bigarren Gerra Karlistan sortutakoak ere. Jose Manterola donostiar euskaltzaleak, adibidez, 1877an idatzitako *Cancionero Vasco-*

n makina bat gerrako bertso bildu zituen, kasik inprentatik atera berriak. Azkuek, Montevillako baroiak, Juan Ignazio Aranak, Baleztena familiak... Haiek ere jaso zituzten euren aletxoak. Baina inor bada bilduma horiek guztiak ordenatu eta

beste hainbat etxe eta baserritan iraun duten bertso-paper gehiago berreskuratzearen arduradun, hori da Antonio Zavalak. “Nik ere nire alegia egin det. Etxe batean paper-pare bat, bestean paper bakarra, pixkanaka eta urteen buruan bilduma ederra osatu det” idatzi zuen *Jakin*-en duela urte mordoak. Esfortzu horren emaitzetako bat da *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* (Sendoa-Auspoa, 1997) liburukotea, eta hortik edan du ase-ezinik Tapiak, Joseba Salbadorren laguntza estimatuarekin.

Herri-memoriaren arrastoan

Zavalaren lan eskergari esker apalean ditugu gaur Bigarren Gerra Karlistako bertso-sor-

Joseba Tapia

«Kantutegia bere horretan da autentikoa»

Badira zortzi hilabete Joseba Tapiak diskoa kaleratu zuela, baina ordutik hona ez da une batez gelditu ere egin lasartearra, han eta hemen emanaldiak eskaintzen. Denbora iraungikor hauetan *Eta tira eta tunba* diskoak ifrentzua utziko duela bistan da, *Agur Intxorta Maite* arrakastatsuak edo *Apoaren edertasuna* biluzgorriak utzi zuten moduan.

Hogeita bi bertso-sortetatik seitan mantendu duzu doinu originala, gainerakoen neurrian eta metrikan akatsak zeudelako, ez al zituzten bada "ondo" egiten? Hasteko esango nuke kantutegi popularra dela; muturreko egoera batean herriak idatzitakoak. Horietan normala da maila ezberdinekoak izatea. Aberastasun asko dago estrofatan adibidez: zortziko nagusi, zortziko txiki, koplak zaharrak, lau errimako bostekoak, zazpi errimako zortzikoak, zortziko txiki erdiak edo lauhoak errepika erantsita, dantza koplen ildoan eginikoak, koplak dekoratiboen baliabideak, herri kanta zaharragoen moldaketak, dialogo txertatuak bertsoan...

Beste doinuak sortzeko lehengo bertsokeran eta koplak zaharretan oinarritu zara. Zehaztu dezakezu gehiago zer irizpide hartu duzun?

Lehengo bertsokerak badu melodian eta erritmoan koerentzia klase bat teknikoki esplikatzen erraza ez dena baina belarriak aise kaptatzen duena. Kantu tradizionalaren koordinadan ulertzen da melodia mota hau, eta gure folklorea eta herri musika hauetakoz betea dago. Ia oraintsu arte bertsolariek erabili dituzte gehien. Baina kantariek ere badituzte bilduma ederrak argitaratuak.

Beraz, nire egitekoa ez zen esperimentazioa edo ez-melodia jorratzea. Alderantziz, pisuzko doinua asmatu behar nuen; ornamentazio gutxirekin, sinplea, karra-tua... azkenean oso kantagarria suertatuko zena. Normalean 2/4, 6/8, 3/4 eta zortziko konpasetan kantatzen direnak. Kantaera eder batek luzituko lukeen doinu eder bat aurkitzen saiatu naiz. Horretarako intuizioa eta esperientzia izan ditut lagun.

Esku-soinua bigarren plano batean geratu da disko honetan eta haize-tresnek hartu dute protagonismoa. Nola egin duzue hain instrumentu ezberdinen arteko harmonizazioa?

Ez dira tresna arraroak elkarrentzako haizezko horiek. Niretzat bai halere. Musikariak ezagutu nituen eta tresna bakoitzaren tesiturak goitik behetik zer nola ziren erakutsi zidaten. Zenbateko transporteak egin behar zitzaizkion tresna bakoitzari. Hori dena buruan sartu ezinik ibili nintzen. Zati instrumentaletan erabaki nuen hiruko sekzioak parte hartu behar zuela aldiro. Eta kantatzerakoan banaka jarriko nituela. Baina ahotsa libre utzeko, ez tapatzeko, bertso doinuaren eroraldietan, esaldien artean sartu beharko zuten. Azkenean topatua



Musikari ugari inguratu da lasartearra lan berria egiteko.

nuen gero guztietarako balioko zuen formula: intro, zubi eta tarte musikaletan egurra, besteetan xuabe.

Banda militarren kutsua eman diezu abestiei, baina aldi berean, "txaranga zoro" usaina dutela ere diozu, kontradikzioa dirudi: ordena eta desordena...

Niretzat ez dago kontradikziorik horretan: militar doinuak beti erabili izan dira erromerietan, Lajak jotzen duen *Sitio Zaragoza* martxa militarra da horren adibide. Iparraldean Besta Berrin klikak eta txaranga herrikoiak nahasten dira. Gure festetan ohikoa dela esango nuke elkartzeko hori. Erlijio agerraldietan buhameak sartzea bezala, Oñatin Korputz Egunean dantzariak elizara sartzen diren bezala.

Bertsoetan ironia, kritika, umorea, elkarriketak irainak... azaltzen dira. Horiek guztiak egoki jasotzeko, intonazioa, erritmoa eta bestelako errekursoak erabili dituzu. Zaila izan al da bertsoei "autentikotasun" hori ematea?

Kantutegia bere horretan da autentikoa. Sinesgarria eta serioa da bertan kontatzen dena. Nik gerturatze bat egin dut. Aldaera bat. Errekreazio bat. Beti gertatzen da, lehengoaren irakurketa berri guztiek zikintzen dute benetan izan zena. Baina ez dago beste biderik.

Orkestraziorako asko izan dira erabili dituzuen instrumentuak: saxoa, bonbardinoa, tronpeta... Banderak aire librean jotzen zutelako erabitzen zituzten haize-tresnak, akustikagatik. Nabaritu al duzue hori estudioan grabatzerakoan? Eta emanaldietan?

Bai. Baina ez da lehenengo aldia hori gertatzen zaidana. Tikitixarekin antzeko erronketan ibilia naiz. Nahiko ondo harrapatzen dute egungo mikrofonoek instrumentuaren irrintzia, baina ez da gauza bera zuzenean entzun edo diskoan. Eszenatokian monitoreetatik entzun edo atzetik belarri ondoan, diferentzia handia dago. Toki txikietan askoz gehiago nabaritzen da handietan baino xehetasun hau. Izugarriko indarra dute akustikoan..

tak. Baina lehen esan bezala, hautsaren bazka izateaz gain, kopia horietako batzuk ere egin dute nolabaiteko ibilbiderik herri-memorian barrena. Gerra karlistetako bertsoen oihartzunak kamuflaturik iritsi izan baitzaizkigu, errepikapen, doinu eta literatur maisulanetan ezkutatuta. Esaterako, Tapiaren diskoari izena ematen dion *Eta tira eta tunba, eta tira beltzari...* estribilloaren doinuak eta hitz aldaerek atzo arte izan dute tiradizoa, egun politikoki onartezina litzatekeen zentzuan gainera: *Eta tiro eta tiro, eta tiro beltzari / eta tiro eta tiro belarrimotzari!* kantatzen zen duela gutxi arte, eta ez prezeski erromeriatan. *Azpeitiko neskatxak* bertso-sortako airea ere ia unibertsala da:

*Azpeitiko neskatxak arrazoiarekin
ez dute dantzatu nahi txapel gorriekin,
Ai ai ai mutillak, txapel gorriekin*

Bigarren Gerra Karlistan asko erabili izan zen hiru puntuko kopia hori, baina lehenago ezaguna behar zuen jadanik, 1867an Lazaro Nuñez-ek bere *La música del pueblo* Espainiako kantu bildumarako aukeratu baitzuen. Ondoren, bertsook 1936ko gerra-aurreko prentsan azaldu izan ziren, baita 1967an *Kantu Kanta Kanthore* liburuxka ezagunean ere, eta berrikitan Oskorrik musikatu ditu bere *The Pub Ibiltaria*-ren barruan, gerra karlistako beste hainbat kanturekin batera. Dena den, batez ere ahoz aho igaro zaigun koplaxoa izaki, deriba selebreak ere izan ditu:

*Egungo neskatilak titi borobilak (bis)
Un poco mas abajo saiatu mutilak,
Ai oi ai saiatu mutilak*

Barojatarrek txikitatik jaso zuten bigarren karlistadetako berri, haien aita Serafin Barojak buru-belarri hartu baitzuen parte propaganda liberalean

Tapiaren diskoan doinu originala mantendu duen beste bertso-sorta bat *Ta noiz zuazte!* izenekoa da. Bilintxen *Juana Bixenta Olabe* bertsoen doinu igoala da, baina berezko izena beste bat du: “Hurra Papitoren doñuban” kantatzeko dela diote bertso-paperek. Santesbenanek bere kantutegian ekarri zuen doinu horixe, baina inork ez du sekula asmatu nondik datorren ezta zer esan nahi duen ere. Bertsoen errepikapenean “Ta noiz zuazte?” galdeztzen dute Donostiako baserritar karlistek, zer esan nahi du? Literatura barojiarrean aurkituko dugu erantzuna, hara zer zioen on Pio bere *Zalacain el aventurero* eleberrian:

“Muchas veces, al cruzar un pueblo, se oía una voz aguda como de Carnaval, que gritaba en vasco: Noiz zuazte? (¿Cuándo os vais?) Lo que quería decir: ¿Cuándo os echáis al campo?”

Beraz, karlisten altxamendu militarren atariko seinalea zen “noiz zoazte” galdetzea. Liberalak ordean, maiz trufatu ziren karlisten altxatzeko mehatxuez —Don Karlosek denbora asko egin zuen Bidasoako mugaren bestaldean zain, eraso jotzeko aukera egokia etorri arte—. *Ta gu gera* izeneko bertsoetan ondo ikusten da nola xaxatu zituzten liberalek karlistak:

*Zuek gurekin juntatutzia
al dezute uste?
Ustiak erdi ustela du-ta,
jaunak, noiz zuazte?
Ta gu gera... (estribilloa)
Bat eta bi ta hiru eta lau,
bost eta bi zazpi,
hoiek diote mos bis bis bis,
guretarak zapi.*

**Boluntario liberalak
Bilboko bateria
batean hiria
defendatzen,
setiatua izan zen
garaietan.**

BIZKAIKO FORU ARTXIBOA



Pio Barojak eleberri berean aitatzten ditu letra horiek. Barojatarrek txikitatiko jaso zuten bigarren karlistadako bertso-gerra haren berri, haien aita Serafin Barojak burubelarri hartu baitzuen parte propagandak liberalen, bai bertsoak inprimatzen eta baita idazten ere. Hain zuzen, *Eta tira eta tunba* diskoko *Karlistaren panparroieria* bertso sorta bikaina Serafin Barojarena da.



Beltz jornalariak versus boluntario fanfarroiak

“El lenguaje que todos aprendieron en la cuna sirve para lanzar insultos, amenazas, calumnias, y en vez de bendecir, maldice”. Arturo Campionek arrazoi berriz ere. Bertso paperak usatuz sekulakoak eta bi esan zizkioten elkarri karlistek eta liberalek, herri-hizkeran dauden baliabide guztiekin.

Gai batzuk behin eta berriz errepikatzen dira karlistadako bertsoetan. Liberalek apaizak gogor kritikatzeko dituzte armak hartu dituztelako (...*Armak hartuta mendira irtenda al da Kristoren legia? / Horra apaizaren fedial!*) eta karlisten ahultasunari burula egiten diote:

*Pasaira heldu omen da Don Karlosen konboia:
lastozko barkuak ta zurezko kañoiak.
Garbitu biharra zioke kanaleko lobia,
bestela nola pasa halako armañoia?*

Karlistak aldiz, serioago, liberalen fede eskasaz eta “lasakeriaz” eskandalizatzen dira, eta “euskaldun prestu antziñakoen” ohiturak –foruak alegia– arriskuan ikusten dituzte: *Libertade horren aizkorarekin / moztuta daude fueruak...* Bestalde, karlistek “beltzak” deitzen zieten liberaleri, Alfons XII.aren armadako asko eta asko Espainiatik etorritako soldatapeko mertzenarioak zirelako, gerrillari karlistak, aldiz, beste kasta bateko borrokalariak zirela demostratu nahi izaten zuten bertsoetan:

Indalezio Bizkarrondo Bilintx (1831-1876).

Donostiako Parte Zaharrean bizi zen bertsolaria eta bigarren karlistada gertutik bizi izan zuen. Karlisten granada batek jota hil zen.

Erabat erromantikoa, amodiozko koplez gain, gerrako bertso-paperak ere idatzi zituen maiz. Tapiaren diskoan azaltzen den Hernani dago penoso sorta berak idatzi zuela iradoki du zenbaitek.

*Gobernuak baditu
bi pezetakunak,
bai eta Don Karlosek
boluntariunak,
boluntariunak
ez jornalerruak.*

Bertsoak leitzen dituenak segituan antzemango dio aberastazun horri guztiari, baina are gehiago preziatzen dira detaile txikiak Tapiaren diskotik entzunda, nota eta silaba bakoitzaren atzean bertso jartzailearen intentzioa zein den imajina bailiteke. Adibidez, *Himno Patriotico*-a ukitu epikoz bustitzen du kantariak, ahots grabea jarriaz eta bukaeran halako oihartzun amaigabe bat emanez: *Biba Don Karlos eta jende bertakua, biba Don Karlos eta jende bertakua, biba...* Eta alderantziz, bertsoak ironiaren bidea hartzen duenean, hori adierazteko intonazioa eta erritmo aldaketak ondo zaindu behar derrigorrez, umore puntua emateko. Eta umorean, Serafin Baroja txapel-dun:

*Karlistak orain dira panparroi,
ustez badira gañan;
segi, mutillak, moteldu gabe,
ea datorren urtian
zuen errege sartzen ote dan
Madriko ikullu batian.*

Bertso hauek entzutea mende eta erdi atzera egitea bezala da, hitz neurtuaren museo batean sartzea bezala: “Konparazioak, metaforak, irainak ere politak ageri dira –dio Tapiak–. Erreferentzia zaharrak, garai bateko hizkera zaharrean informazio zuzena eskaintzen digute kantuok. Hemeretzigarren mendeko gertakari garrantzitsuenetakoari buruzko lekukotza ezinbestekoa dira. Euskaldunon historian bidegurutze seinatu bat. Historia liburu fidagarriena da kantutegi hau”. ■

EUDEL

**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Imanol Oruemazaga Baseta

«Ahotsa altxa genuen, herrian eta gotzaindegian»

80 urte ditu Imanolek. Marik 81. Honek, emazteak, alzheimerra dauka. Imanoli ere izenak eta kontu asko ahazten ei zaizkio. “Eta guri... Eta gazteagoak gara” esan diogu. “Hainbeste egurre jasota nago bizitzan...” diosku. Hala eta guztiz ere, hori sasoia!

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Imanol Oruemazaga. Ondarroan gaude, zu baina, Berrizen jaio zinen...

...Oruemazaga Baseta. Kontuz, ama ez da ahaztu behar...

(...)

Bai, Berrizkoa naiz. 1931n jaio nintzen, errepublika denboran. Pasadizo bat kontatuko dizut: Bilboko eta Gasteizko gotzaindegiek guk apaizgaiok Saturrarana hamabost egun pasatzera etorri behar genuela pentsatu zuten. Pipa pasa genuen. Ni ordea kezkatuta nengoen aita-ama baserrian ereite lanetan ari zirelako. Hurrengo urtean Casimiro Morcillo gotzainari idatzi nion: “Ni baserriko semea naiz, etxean beharrean daude eta nire beharra daukate”.

Zelan moldatzen zineten gotzainarekin?

Casimiro Morcillo gotzaina Begoña basilikan bizi zen. Gogo-jardunak egitera hara joaten ginen; *Misioneras Seculares* mojak ziren ardura-dunak. Gotzainarengana hurbiltzea zaila zen, aparteko pertsona zen. Gotzainaren idazkaria Martija Berrizkoa zen, Lejarreta txirrindulari famatuaren osaba. Behinola deitu zidan –lagunek “*vaya rosca que tienes*” esaten zidaten– zera esateko: “*Tú no eres Imanol, tú eres Manuel*”. “*Yo soy republicano y me llamo Imanol*” nik. Hark berriz: “*¿Qué me dices, qué me dices..?*” Eta nik... “*yo nací en tiempos de la república, Imanol era tan legal como Casimiro*”.

Ondarroara etorriko zinen geroago.

Gozaina Gasteizera etortzen zen. Ni organoa jotzen ikasten ari nintzen orduan, baina,

egia esan, aspertuta nengoen. Langile herri batera joan nahi nuela esan nion gotzainari: “*Te mandaré, te mandaré...*”. Dos Caminos auzora bidali ninduen, Basauri ondora. Han hamaika hilabetez egon nintzen, gotzaina aldatu zuten arte. Handik Ondarroara bidali ninduten.

“Apaiz ohia, abertzale, gogorra...” entzun dut zutaz.

Apaiz ohia ez, apaiza. *Sacerdos in eternum*. Niretzat hori betiko geratu da. Teologian esaten denez, ordenuaren sakramentuak “*imprime carácter*”. Apaiza nintzen eta naiz, ezkontuta, adintsu samar ezkondu nintzen. Abertzale eta gogorra diozu...

(...)

Nire aita kontzejala izan zen Berrizen, Errepublikako azken urteetan; ez zen PNVkoa. Ekainaren 21ean jausi zen Bilbo, herrira tre-

Nortasun agiria

Berrizen (Bizkaia) jaio zen 1931n. Apaiza. Bere aita pilotaria izan zen, palista. Bilboko Euskalduna frontoian jokatu zuen, eta Madrilan ere bai. Ama Axpekoa zuen, baserritarra. Zamorako kartzelan izan zen frankismoan; Gogor mugimenduko kide izan zen. Zamorako apaiz taldearen bizipenak biltzen dituen liburua ateratzear dela, Koldo Arriola. *Ondo lotutako hilketa baten istorio beltza bezain sakona* (Ondarroako Historiazaleak) kaleratu berri du.



nez zetorrela atxilotu zuten. Uztailaren 10ean, San Kristobal egunean, eramane zuten epailearen aurrera, eta berarekin batera Bermeoko lagun gazte bat. Fiskalak 30 urte espetxe zigorra eskatu zuen lagunarentzat, eta aitarentzat heriotz zigorra. Faxistek Berrizko alkate zena, Felipe Urteaga, fusilatu zuten. Aitak “ni ere garbituko naute” pentsatu zuen. Berrizko markesari esker heriotza zigorra kendu zioten, txiripaz.

Ezkondua zara. Zure emazteak alzheimerra daukala esan zenedan, telefonoz hitzordua hartu genuenean. Zer erakutsi dizu egoera horrek?

Erreflexio bat baino gehiago eragin dit bere egoerak. Mari, emazteak, zaindu zuen nire ama hil arte. Ama nirekin bizi zen. Duela zazpi urte alzheimerren usaina hartu nion emazteari: “Mari, zuk zaindu duzu nire ama urte gogorretan eta orain zu zaintzea tokatzen zait niri” esan nion. Baserriko ohiturarekin lotzen dut betebeharrak. Txikia nintzela baserrian txerria hil eta odolkiak ematen zizkieten ondoko baserrikoei. Niri ere odolosteen txanda heldu zait. Pozik bizi naiz erreflexio hori eginda. Goizeko seietan jaikitzen gara eta Eguneko Egoitzara eramaten dute, Lekeitiora. Gaur, berriz, hemen egiten du, ezkerreko hormara begira. Esmatzean esaten diot: “Maria Goenaga Erostegei...”. Eta berak “...Izagirre Burgoa”.

Saturraran aipatu duzu lehenago. Frankistek emakumeentzat prestatu zuten kartzela.

Bai, oso presente daukat. Berriz bizi ginen, parrokiara ondoan, Felix Gallastegi zen abadea, amaren osaba, Axpekoa. Osaba parrokoaren laguntzailea Benantzi zen. *Euzkadi* egunkaria irakurtzea izan zen bere delitua. Saturrarango kartzelan sartu zuten.

“Don Pedro Arakama zen parrokoa, Zegamako semea. Tristeia da esatea baina hemengo jauntxo frankisten menpe zegoen. Mutis bat zegoen elizan”

Ondarroara etorri zinen apaiz azkenik. Nolako zen Ondarroa orduan?

Behartuta etorri nintzen, negarrez. Herri arrantzale zen oroz gainera. Gorakada izugarria ezagutu nuen lehenik, eta gero beherakada. Ondarroan alturako arrantzak garrantzia handia izan zuen, eta baxurakoak ere bai. 1967 urtean 56 baxurako txalupa itsasoratzen ziren.

Itsasora ateratzen zinen? Kapilau edo?

Ez. Arrantzale joan nintzen abade nintzela, behin bakarrik, *maria* bat egin nuen, antxoetan. Goizaldeko ordu batean etortzen ziren Galiziako eta Santanderreko txalupak, portu osoa betetzen zuten. Esperientzia zoragarria izan zen, ardorako arrantza daukat oraindino gomutan: arrantzaleek sareak bota eta denok batera altxatzean txalupen argiak pizten zituzten, Paris agertu zen itsasoan. Parisko gaua izan zen niretzat. Itzela.

Herriko elizan nola zeuden gauzak orduan?

Parrokian Don Pedro Arakama zegoen parroko, Zegamako semea. Tristeia da esatea, baina hemengo jauntxo frankisten menpe zegoen. *Mutis* bat zegoen Elizan. Probintzian bazegoen mugimendu zerbait Elizaren inguruan, baina herriko gazteentzat ez zegoen ezer. Egun batean gazteek entzerrona egin zuten elizan, goizeko ordu bietan kanpakiak jo zituzten, eta atxilotuak izan ziren. Handik aurrera jende askok parrokiara joateari utzi zion. Ni Kamiñazpi auzoan nengoan, arrantzale auzotxoan, orain etxetik beteta dago. Nire borondatearen kontra etorri nintzen Ondarroara, organista. Hamar urteren ondoren Don Pedrori proposatu nion Kamiñazpira joatea. Barrakoi bat muntatu genuen eta apaiz moduan nituen asmoak hasi nintzen betetzen, apaiz-langile modura, berba batez.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Goizean langileen beharrak egiten nituen, eta arratsaldean apaiz lanak. Izugarrizko errepre-sioa etorri zen orduan, atxiloketak eta isunak ezagutu nituen.

Telesforo Monzonen *Itziarren semea* kantuak famatu zuen Ondarroa. Semea Andoni Arrizabalaga izaki.

Pertsona oso interesgarria aipatu duzu. 1967an Andoni eta biok elkarrekin pasa genuen astebete Perdido mendian; Gorlizko aterbearen ondoan, kanpinean. Meza eman genuen hantxe. Andoni akolito izan nuen, orduko argazki bat gordetzen dut. 1968an atxilotu zuten. Frantziako 1968aren maiatza munduan entzutetsua izan zen, eta Euskal Herrian geure maiatza izan genuen. Errepre-sioa ikaragarria izan zen, izugarria. Politikan, zentzu zabalean, aldaketa eman zen. Berbarako, Ondarroako herria kalera atera zen Madrilgo jauntxoek bertako portua kendu nahi zutelako. Ibaiaren norabidea aldatu eta herriaren kalterako hirigintza proiektu txarra onartu zuten, obrak ere esleituak zeuden. Herria jaiki zen baina. Kamiñazpitik jaitsi zen manifestazioan eta obra geldiarazi zuen. Herriko manifa itzela izan zen. Handik aurrera gauza izugarriak gertatu ziren, horietako bat, Andoniren atxiloketa.

“Nik hiru urte segidan ezagutu nuen Zamorako kartzela, 1968, 1969 eta 1970. urteetan” idatzi duzu laster kaleratuko den liburuan.

Lehen aldiz, 1968an urriko 12aren ostean eraman ninduten preso. Guardia Zibilak *Pilarica* eguna ospatu zuen. Espainiako banderek Birjina tapatzen zuten elizan. Ni Kamiñazpin nengoen, baina herriko seme baten ehorzketa



Ondarroa (1)

“Hainbat jende ez dugu zergarik ordaintzen. Intsumitu gara. Herri bizia da Ondarroa, hori da nire poza. Nik ez dut kontsignaren beharrik. Nik nire ekarpena egin dut herri hau bere buruaren jabe izan dadin. Herria eta pertsonak beren buruaren jabe izatea nahi dut, pertsona aske herri librean”.

zegoen parrokian. Don Pedrori esan nion: “Herritarren meza bat eta eliza Espainiako banderaz beteta! Ezin leike... Banderak tapatu edo zer edo zer egin behar da”. Hark ezetz, ezin zela ezer egin. Sakristian sartu nintzen eta sakristauari “tapatu mesedez bandera horiek” esan nion. Bada esan nion eta hark tapatu ere. Hurrengo egunean kartzelara eraman ninduten. 1969an, berriz, Derioko Gotzaindegian entzerrona egin genuen eta barrura. 1970ean salbuespen egoera jarri zuten Gipuzkoan eta Bizkaian. Bizkaian bi herri hartu zituzten “eredu txar”tzat: Barakaldo herri langilea eta Ondarroa abertzalea. Orduan ere, sarekadan harrapatu ninduten.

Zergatik eraman zintuzten baina?

Indautxuko polizia sekretuaren burua etorri zen herrira: Criado. Erregistro itzelak egiten zituen poliziak. Motiboa? Nire etxea erregistratu eta Jose Antonio Retolaza [Retolaza familia jeltzalekoa] abadeak ateratzen zuen *Kili-kili* aldizkaria aurkitu zuten. Aldizkaria umeentzat zen, nik banatzen nuen Ondarroan. Umeek Iparraldera ibilalдитxo egingo zutela idatzia zegoen zenbaki hartan, zerbaiten saria zen nonbait. Euskal Herriko mapa zekarren eta hara, espetxeratu egin ninduten. Akusazioa: “*Tener una veintena de ejemplares de*



Kili-Kili, que exhibe un mapa de mercado matiz sectorio separatista”.

Zamoran egon zineten apaizen liburuak honela dio sarreran: “Zuzengabetasunaren aurrez aurka urten barik, borrokan egin barik gelditzea, ezta ez gizakor eta ez kristau”.

Hori izan da gure bizitzako borrokaren *leit-motiva*. Guk horixe egin genuen garai hartan, ahotsa altxa genuen, bai Gotzaindegian bai herrian ere. Besterik ez. Orduan sortu zen apaizen Gogor mugimendua.

Zamorako apaiz taldekoek ondo pasatzen zenuten antza. Giro ona zen zuen artean.

Bai, hamaika pasadizo ditugu kontatzeko. Behin, abuztua zen, Xabier Amurizak ezkontza batera atera behar izan zuen. Patioan geunden besteok, atorrak jantzita, eta bera aldiz abitu eta clermanaz irten zen. Ze barreak egin genituen haren kontura... Zamoran gure kapitaina genuen: Nikola Telleria. Gauez desfilitzen genuen: “Eusko gudariak gara...” abesten genuen eta amaitzean Gora Euskadi Askatuta! oihukatu. Hura espektakulua. Zaindariak ateratzen ziren garitetatik *“eso no, eso no se puede hacer”* oihuka.

Koldo Arriola. Ondo lotutako hilketa baten istorio beltza bezain sakona liburua kaleratu berri duzu.

Nire bizitzako arantza bat atera dut. Nik mutikoa ez nuen hainbeste ezagutu, gurasoak bai, frankistak ziren. Kamiñazpin bizi nintzela, Arriola familiak han zuen taberna. Guardia zibilak tabernan egoten ziren sarritan. Amak esan zuen: “Nire semea bi bider hil dute, bi bider”. Kolpe gogorra izan zen. Semea hiltzeaz gain, haren kontra atera zen justizia: *“Se abalanzó sobre un guardia civil”*. Hura justizia! Semeak guardia zibilei eraso egin ziela entzun behar izan zuen amak. Semea ez zen politikan sartzen...

AZKEN HITZA

Kakao mentala!

“Atxilotu eta Indautxura eraman gintuzten sei abadeok, polizia-
ren jefaturara. Basauriko espetxean egon ginen gero, bakoitza
zelda batean, irten barik: *‘periodo sanitarioa’*; itxuraz *pestea*
eramaten genuen kanpotik. Basaurin ginela, goizeko bostetan
altxa gintuzten. Madriletik kotxe izugarriak ekarri zituzten,
kotxazoak. Hiru kotxe eta bakoitzean abade bi: *‘Por el decoro
debido al estado sacerdotal’* esan ziguten. Txoferra eta polizia
aurrean, eta beste polizia bat atzean. Barazarreko bidean beste
kotxe batzuk ikusi genituen gure ondoan, pistolak eta metraile-
tak nonahi: *‘Zer pasatzen da?’*. Pentsatzen zuten nonbait, ETAKo
komando bat gu askatzera irtengo zela. *Ze kakao mentala!*”

Ondarroa (2)

“Ondar ahoa. Gu
hizketan ari garen
inguruko kale hauek
denak ziren
hondarra, ibaiaren
ondokoak. Garai
batean txalupak
porturatzen
zirenean, arrainez
gainezka,
arrantzaleek salto
egin behar zuten
Kofradiara
ailegatzeko
[Kofradia ondoan ari
gara berbetan].
Batzuetan ezin
zuten hurbildu
hondar pila
zegoelako.
Arrantzaleen
esaera... Nola zen?
Ahantzi dut esaldia,
baina zera adierazi
nahi zuten: ‘Ardorik
ezin edan, urik ez
dagoelako’.
Kofradiara ezin iritsi
geratzen ziren,
txalupan”.

“Buruhausterik handiena Koldo pertsona beza-
la despolitizatzea izan da, eta zen modukoxea
agertzea” idatzi duzu.

Bai. Maiatzaren 1ean manifestazio handia
pasa zen koartelaren aurrean. Guardia zibilak
amorratuta zeuden. Sarekadak izan ziren.
Koldo herriko seme arrunta zen. Liburuko
lekukotasunek horrela agertzen dute. Mendi-
ra irteten zen, mugimendu polita zen men-
dian, baina bera ez zen politikan sartzen.

Nola ikusten duzu gaur egun Ondarroa?

Nik hiru belaunaldi ezagutu ditut. Iritsi nin-
tzenean galego asko ailegatu zen. Gero, Gali-
zian arrantza indartu zen eta asko itzuli ziren,
beste batzuk hemen ezkondu eta bertan
geratu ziren. Bigarren aldean andaluziar eta
Extremadurako asko etorri ziren, arrantzara
ere hauek. Azken alde berriz afrikarrak izan
dira. Egun, Ondarroako flota, arrastekoa,
bizirik dago beltzak itsasora irten direlako.
Galegoen integrazioa ona izan da, extrema-
durar eta andaluziarrenak ez hainbeste. Bel-
tzek famatu dute Ondarroa. Erraztasun itze-
la dute hizkuntzak ikasteko, euskara ere ikasi
dute. Euren artean nahastuta datoz, tribu
ezberdinetakoak dira, eta hizkuntza ezberdi-
nak erabiltzen dituzte. Gurea ere halaxe da.
Nik bi ikasle izan nituen, Angolara joan ziren
misioetara. Bat erdalduna, Gordexuelako
Raul eta bestea euskalduna, Arratiako Periko.
Arratiarrak hango hizkuntza ikasi zuen, Rau-
lek ez.

Ondarroara behartuta etorri ei zinen. 80 urte
dituzu...

24 urterekin etorri nintzen, negarrez, eta
ondarroar egin naiz. Berriztarra naizela esa-
ten dut, baina herritarrek ezetz, ni ondarroa-
rra naizela diote. Beraz, badut poz itzela.
Ondarroa herri bizi-bizia da, nire herria da
hau ere. ■

Kultura eta eztabaida trago artean

“Giza-ekintzaileen kooperatiba, arteetako eta farandulako jende ona eta etorkizun hobe baten minean”. Horrela aurkezten du bere burua Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoak. Hamabost urte daramatza etorkizun hori eraikitzen, kultur eta gizarte ekintza orotarikoen aterpe.

MIKEL GARCIA

LOKAL IREKIA DA Irungo Kabigorri, anitza, plurala, beraien jarduna aurrera ateratzeko edo erakusteko lekuri aurkitzen ez dutenen gune, besteak beste. Pentsamolde ezkertiarreko jendea bildu ohi da, baina oso zentzu zabalean, eta hori azpimarratu nahi izan dute kideek. Azken finean, Ateneo asko mugimendu politiko jakin batetik sortu ziren bere garaian eta Irungoa ere Zutik-en inguruko korronteak bultzatu zuen, baina proiektua sostengatzeko nahikoak ez zirela-eta, jende

gehiagori ireki zizkieten ateak, eta emaitza aberasgarriagoa izan dela uste du egungo lehendakari Luisma Morenok: “Ekimen independentea da, ez dago kontrolik erakunderen baten aldetik, bazkideek beraiek baino ez dute agintzen”, eta edonor izan daiteke bazkide.

1996an, gizarte mugimenduetatik eta kultur arlo ugaritatik gerturatutako jendea elkar-tu zuen Kabigorrik, “Errepublika garaiko Ateneoak buruan, ezkerreko begiradatik

Kabigorriko kide Luisma Moreno (ezkerrean) eta Javi Sistiaga, atzean Kabigorriko eszenatokia dutela eta eskuetan, Patxi Serrano artistaren koadroak, Ateneoan ikusgai izandako *Hitzak begientzako* ikus-poema erakusketakoak.



MIKEL GARCIA



KABIGORRI



KABIGORRI

gizarte eta kultur proiektu anitza bilduko zuen ekimena abiatzeko xedez”, dio Javi Sistiaga bazkideak. 1997ko udazkenean jarri zuten martxan taberna ere baden Ateneoa, eta topagune funtzioa bete du ordutik, jarduera kultural eta sozialez gain, egitasmo ludikoak, euskararen presentzia edota eztabaidarako eta era guztietako bilerak antolatzeko gune izatea ere lehenetsiz. Ez da lokal alternatiboa, “baina bai desberdina, Bidasoaldean eskaintza berri bat ematen duena”, azaldu du Sistiagak.

Salvador, Berlanga eta Olentzero

Iñaki Salvadorren kontzertua, Itxaro Borda eta Maddi Oihenarten poesia eta kanta emanaldia, Luis Garcia Berlanga zinema zuzendariari buruzko zikloa —haren semea lekuko—, Juan Crego eta Patxi Serranoren erakusketa, Iraken hildako José Couso

Itxaro Bordak

“Euskal Herrian badira poesiaren errateko leku bereziak. Duela zenbait aste bigarren aldiz Kabigorri egon nintzen Maddi Oihenart eta Jeremi Garat kitarra jolearekin, olerki zenbait irakurtzen. Altzo iluna jendez mukuru zegoen, nahiz eta ez ziren guztiak euskaradunak. Denek ordea hitzen zirrara nabaritu zutela salatu ziguten emanaldia bukatzean. Mintzairak elkar ku(rru)skatzen diren gune txikiak muga eremu porotsuak ere dira, ahalezkoa bide den osoaren hedatoki. Periferietan dogmak edo sineste finkatuak berazten direla uste dut zentroetan baino anitzez gehiago. Kabigorri bilgunea eramaten dutenak gainera bihotz onekoak eta esku zabalak direla erantsi dezadala. Zorion hutsa da azkenean Kabigorri aritzea, jotzea, isiltzea, aspaldiko adiskideak gurutzatzea. (Euskarazko) poesiak horrelako plazak premiazoak ditu”.

kameralari galiziarraren inguruko liburu aurkezpena (anaiak), euskara elkarteak prestatutako kafe-antzerkia, Olentzeroren etorrera, edertasunari edota AHTari buruzko hitzaldiak, topaketa kultur anitzak, sukaldaritza begetarianoari eta makrobiotikoari eskainitako tailerrak, bigarren eskuko produktuen salerosketarako azoka... Denetarik antolatzen dute Kabigorri, bi irizpideren bueltan: ekitaldia fisikoki eta ekonomikoki bideragarria izatea, eta norbaitek ardura bere gain hartzea. 170 metro koadro (12 metro koadroko eszenatokia) eta 80 ikuslerentzako edukieran egingarria bada, aurrera. Egitarau finkoa uztartu egiten dute suertatzen doazen proposamenekin.

Ateneoak berak bultzatutako ekitaldi eta jardunaldiekin batera, asko dira alderantzizko bidea egiten duten asmoak: kanpotik datozkien eskaerak. “Guri gustatzen zaigu azpimarratzea kontsokratua ez dela etortzen hona diruagatik, gastuak baino ez baitizkiegu normalean ordaintzen, gustuko lekua dutelako etortzen dira, atsegina zaielako; aldi berean, esperientzia falta duenarentzat toki aproposa da, ikasteko eta aritzeko. Guk berdin hartzen ditugu batzuk eta besteak”, dio Morenok.

Espazio irekia den aldetik, talde ugari erabili du Kabigorri bilera, entsegu eta elkarretaratzeetarako. Lokala lortu aurretik, Nicolas Gerendiain Irungo Errepublika Elkarteak eta SOS Arrazakeria Bidasoak adibidez Kabigorri zuten topagune, eta urte gogorrenetan Alarde Mistoko partaideen bilgune izan zen. Horrek lekua pixka bat “satanizatu” zuela azaldu du Sistiagak, baina azken urteotan lortu dutela Alardearen gurutze hori gainetik kentzea, egiten duten lanari esker, “eta Kabigorriren irudi errealagoa



MIKEL GARCIA

ematera iritsi gara, kultur eta solidaritate mugimenduekiko konpromisoari lotua". Hein batean, Ateneoak katalizatzaile funtzioa betetzen duela gaineratu du Morenok; Irun Iruten euskara elkartearen ekitaldiek, Lakaxita herriko gaztetxearenak, Irungo Bilgune Feministarenak, Antxeta Irratikoenak... Kabigorri izan dute eszenatoki behin baino gehiagotan.

Mugimendu handia al dago ba eskualdean? Gizarte arloan, garai batean ez bezala orokorrean gai handiekiko erantzun sozialik ez dela ikusten uste dute Sistiagak eta Morenok, ez Irunen, ez oro har. Erantzun puntualak bai, jende inplikatuagoaren eta konprometitua-goaren aldetik, baina ez mugimendu orokor gisa. Muga administratiboa saihestea ere ez da erraza: "Saiatu gara Iparaldeko jendearekin gauza puntualak egiten, Antxeta Irratiarekin eta poesia jardunaldietan... baina ez da gure indargunea. Errealitatea da inkomunikazioa dagoela bi aldean artean: gure buruetan, kulturen eta harremanetan dago benetako muga".

Dena den, muga guztiak gainditzeko lanean jarraitzen du Kabigorrik. Aisialdian Irun nahiko hiri zatitua dela dio Sistiagak; Mosku auzoan dago Ateneoa eta tabernara giro horretan ibiltzen den jendea gerturatu ohi da, baina ekitaldietara mota guztietako publikoa erakartzea lortu dute, rock gogorreko kontzertua eskaini dezaketelako egun batean, eta hurrengoan harizko laukotearena, edo folk, pop, flamenko... estiloko emanaldia. "Kabigorrik Iruntentzat duen esanahian bilakaera eman da. Gaur egun

Ezker-eskuin: Kabigorriko eszenatokian, Paddy Rekarte musika, poesia eta pintura uztartzen dituen ikuskizuna eskaintzen (2007ko urtarrila); Garbiñe Insausti *Ibilian* diskoa aurkeztzen (2006ko abendua) eta orrialde honetan, taberna funtzioa betetzen duen Ateneoko barra.

erreferente bat da eta jendeak badaki Kabigorriin maiztasun handiarekin zerbait aurkituko duela: erakusketaren bat, zikloren bat, kontzerturen bat... Denborarekin hori irabazi dugula uste dut, errespetu hori, lekua egitearena, eta ez da erraza", dio lehendakariak.

Ordea, diru kontuetan estu segitzen dute. Taberna eta bazkideen kuota dira diru-sarrera ia bakarrak eta zorpetuta eta beti juxtu ibili ohi direla nabarmendu dute; horregatik, bazkide berriak ongi-etorriak dira. Egun, 105 bazkide inguru dituzte eta 140 euro ordaintzen dute urtean –lanik gabeko gazteek 80–. Erabakiak bazkideentzako batzordeetan eta nahi duen ororentzako batzar irekietan hartzen dira. "Gobernuz Kanpoko Erakunde modukoa da hau, kar, kar, kar. Baina beharrezkoa da halako ekimenak aurrera ateratzea, Kabigorri irekita egongo ez balitz ziurrenik ezingo genukeelako hainbat ekimen ez beste inon disfrutatu".

Barradun Ateneoa

Esan bezala, taberna ere bada Kabigorri, eta funtzio hori beste edozein tabernak bezala betetzen du. Halere, kideei gustatzen zaie esatea barradun Ateneoa dela, ez delako "eta ez dugulako nahi izatea" beste edozein tabernaren modukoa, esanahi handiagoa duen lekua baizik. Lehentasuna jardunak du eta ekitaldiaren arabera moldatzen da espazioa, mahaiaik kenduz, behar denetan barra itxiz... Taberna jendea erakartzeko baliabide ona denik, baina, ezin da ukatu. "Eta hori, egia esan, ona da –adierazi du Morenok–, lokal sozial irekia delako, egunero zabalik, ez beste Ateneo batzuen gisan ekitaldirik ez dagoenean itxia; eta irekita egoteak ahalbidetzen du jendeak gertuko sentitzea".

Eta jendea gerturatzen den bitartean, kultur eta gizarte ekintza bestelakoak ikusteko publikoa eta haiek sustatzeko eragileak egon bitartean, beste urte mordoxxa baterako habia gorria izaten jarraituko du Bidasaldeko Ateneoak. ■

"Kontsokratua ez da etortzen hona diruagatik; aldi berean, esperientzia falta duenarentzat toki aproposa da. Guk berdin hartzen dugu bata zein bestea"

LUISMA MORENO, KABIGORRIKO LEHENDAKARIA

Herbeheretarrekin ingeleza praktikatzen

Ikasturte osoan ikasten aritutako ingeleza praktikatu beharra dagoela-eta, Silvolde-ko (Herbehereak) Isala ikastetxeko ikasleen etxeetara joan dira aurtengo Ibilaldia antolatu duten Ondarroako Zubi Zahar eta Lekeitioko Resurreccion Maria Azkue ikastolako gazteak. Azaldu digutenez, herbeheretarrak ere Ibilaldirako egunak kontatzen ari dira.

ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE

Argazkiak: Dani Blanco

HIZKUNTZA, PRAKTIKATU EZEAN, ahazteko arriskua dago. Galdu egiten dira hango eta hemengo arau eta salbuespenak. Beraz, txikitat ingeleza ikasten sartutako orduetarako ateratzeko, duela hamar urtetik tratua dute atzerriko ikastetxearekin Ondarroako eta Lekeitioko ikastolek. Beste hainbat ikastetxeekin egin izan dute trukea aurretik, baina duela lau urtetik Silvolde herriko Isalarekin dute harremana: azaroan, euskaldunak hara joaten dira; martxoan nederlandarrak etortzen dira hona. Hain zuzen, martxoko egonaldian gerturatu gara Lekeitiara, esperientzia nolakoa izan den konta diezaguten.

Ikastolan oso txikiak direla hasten dira ingeleza ikasten. Lau urterekin jada lehenengo hitzak eta abestiak barneratzen dituzte. Ikastolen Elkarteko Eleaniztun Programari jarraiki, gazteak astean hiru bat orduz aritzen dira ingelesez. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, Gizarte Zientziak ingelesez ematen hasten dira, eta handik urtebetera egiten dute trukaketa herbeheretarrekin, 15-

16 urterekin. Helburu bakarra ez da, gainera, hizkuntza hobeto barneratzea: hamar eguntan kultura, ingurune eta ohitura berrietara egokitzea ere erronka da ikasleentzat.

“Ingelesa aitzakia da beste gauza asko egiteko” dio Idoia Barinaga Zubi Zahar ikastolako Ingeles eta Gizarte Zientzietako irakasleak. Azken finean, lekeitiarrak eta ondarrutarrak lehen egunetik nerderlandarrekin hartu-emanen aritzera eta elkar ulertzera “derrigortuta” daudela dio Barinagak, egun batzuetarako baino ez bada ere haien etxeetan biziko direlako, eta hango bizimodura egin. “Aldamenean ez dute irakaslerik, euren kabuz moldatu behar dute” argitu du irakasleak.

Baietz, hasieran gogorra egiten dela onartu digute ikasleek, baina azkenerako esperientziak merezi duela. Hala diote Imanol Goitia, Iraide Juaristi, Gorka Intxausti eta Nahia Azkaratek, eta berriz ere joango liratekeela baieztatu dute aho batez. Egokituko zaizkien lagunekin eta haien senideekin izaten dute



**KRESALA
KULTUR
ELKARTEA**

IBILALDIAREKIN, *Boga*

Artabide, 23 / 1
48700 Ondarroa (Bizkaia)
946831134



akele
jatetxea

erribera kalea, 37
berriatua (bizkaia)
946 13 90 03
www.akele.es



KULIXKA TABERNA

Itsasaurre, 5 behea · 48700 ONDARROA
Tel. 946037008



Ezkerreko irudian, Euskal Herriatik Herbeheretara bidaiatu duten hainbat ikasle: ezker-eskuin, Imanol Goitia, Iraide Juaristi, Gorka Intxausti eta Nahia Azkarate. Eskuineko argazkian, Silvolde herritik Ondarra eta Lekeitiora etorritako irakasle eta ikasleetako batzuk.

hasieran beldurrik handiena, elkarren berri jakin gabe baitoaz. “Behin jendea ezagututa hobeto moldatu gara”, dio Goitia lekeitia-rrak. “Hasieran, lehenengo egunetan, txarto pasa genuen baina gustura aritu gara gero”, gogoratu du Juaristik. Denbora kontua, beraz. Salto handienetakoa otorduetan nabaritu dute, bestelako ordutegia dute-eta. “Ari-nago egiten dute dena, eta bazkaritarako sandwich bat baino ez dute jaten”, zehaztu du Azkaratek.

Miraririk ez, aurrerapausoak bai

Ohitura aldagetak gorabehera, ingelesarekiko jarrera hobetzeko eta motibazioa areagotzeko balio du trukaketak. Miraririk ez dago, baina aurrerapauso handiak egiten dituzte ikasleek. “Beharbada ez dute ikasiko dakitena baino gehiago, baina praktikatzeko oso aproposa da esperientzia”, argitu digu Barinagak. Iritzi bera dute ikasleek, Gorka Intxaustik dioenez: “Soltura hartzeko balio izan digu, ez hainbeste ikasteko, astebetean ezin delako askorik egin”.

Komunikatzeko beste modurik ez dutela igaro dituzte bi asteak, Herbeheretan lehenengo, Euskal Herrian ondoren. Gazte her-

beheretarrak nederlanderaz aritzen dira beraien ikastetxean, eta ingelesa bigarren hizkuntza dute. Beraz, bi aldeek badute zer ikasia. Azkenerako lotsa kendu eta erraztasuna lortu nahi da, eta lortzen dutela azpimarratu du Barinagak: “Nahiz eta gramatikalki ez egin %100 zuzen, ikusten dute moldatzen direla, gai direla elkar ulertzeko”.

Irakasleak urte batzuk daramatza jada trukean parte hartzen eta nabarmendu du ikasleak urtero kezka berdinarekin joaten direla: “Pentsatzen dute nederlanderrek maila hobea dutela, eta egia da, baina aldea ez da uste dutena bezain handia, txikia da maila ezberdintasuna”. Han, jarriagoa dute belarria, telesailak eta filmak ingelesez ikustera ohituta daudelako, azpigituluekin. Ez dute, gurean bezala, bikoizketarik, eta jatorrizko bertsioan ikusten dituzte pelikulak. Horregatik, hizkuntza etxekotuagoa izanik, ingelesez ausardia handiagoz aritzen direla gaineratu du Barinagak.

Herbeheretarrek, gainera, badute triki-mailurik: nederlanderazko hitzak sartzen dituzte tartean, eta euskaldunek hasieran uste dute ingelesez ari direla. Azkenerako, ordea, jabetzen dira bi herrietako ikasleen

Leagi kanpina
Leagi auzoa, z/g
Mendexa (Bizkaia)
☎ 94 684 23 52
www.campingleagi.com
Jatetxe berria zabalik!

Villa Itsaso Hotela
Lekeitio (Bizkaia)
☎ 606 005 005
www.hotelvillaitsaso.com

BOGA!
gan bratan
ONDARRUN
pertsian-paf of de miusik skuer



arteko aldea ez dela hainbestekoa, ingeles mailari dagokionez.

Herbeheretarrak gurean

Ikasle ondarrutar eta lekeitiarrak ez dira izan kultura berri batera moldatu behar izan duten bakarrak. Nederlandarrei ere kostatu zaie hemengo hainbat ohiturara egokitzea. “Esaterako, ulertzen zaila egiten zaie eguerdian bazkaltzeko esertzea”, kontatu du irakasleak. Kontuak kontu, ondo moldatu dira Silvoldeko gazteak Euskal Herrian, eta horren adibide da Hilde Begeman ikasleak adierazi diguna: “Gustatu zaizkit hemengo jendea eta ingurua. Hondartza inguru hau oso polita da”.

Bestalde, euskararekiko interesa erakusten dutela azaldu du Barinagak, eta hitz solte batzuk ere ikasten dituztela: “Ikusten dute hizkuntza aldetik bereizi egiten garela espainiarrengandik, eta horren zergatia galdetzen dute”.

Agian Ibilaldirako ez dute euskaraz hitz egiten ikasiko, baina ikastolen aldeko jaiareki-

Aurten landutako gaia ura izan denez, Isala ikastetxeko eta Zubi Zahar eta Resurreccion Maria Azkue ikastoletako ikasleak batera aritu dira arraunean.

ko jakin-mina ageri dute. “Batez ere, hango irakasleek galdetzen digute ikastolen baliabide ekonomikoei buruz. Harrigarria egiten zaie, haiek ez dute-eta horrelako arazorik. Oso berezia iruditzen zaie Ibilaldia bezalako jai bat”. Gazteek berriz, soinean daramatzate Ibilaldiko kamisetak eta txapak.

Conbenius programa abiapuntu

Bi herrialdeetako ikastetxeak Conbenius programari esker daude harremanetan, ia urte osoan. Horren bidez erabakitzen dituzte ikasleek landu beharreko proiektuak. Aurten adibidez, Herbeheretan eta Euskal Herrian landu beharreko gaia ura izan da. Sei lagunek taldeetan bilduta landu dituzte beren proiektuak, eta gero aurkezpenak egin dituzte. Ura aitzakia, txangoez ere gozatu ahal izan dute: Bilbon izan dira esaterako, hiriko iturriak bisitatzen, baita araztegi batean ere. Hain juxtu, aurtengo Ibilaldiko leloak badu urarekin zerikusirik: *Boga!* arrantza munduko hitza da, aurrera egiteko erabiltzen den hitza. ■

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

**ONDARROAKO
BATZOKIA**

Ondarroako kaiaren gainean
Euskal produktuen sukaldaritza tradizionala
250 lagunentzako jangela

☎ 946 832 665
Artabide, 36 · Ondarroa (Bizkaia)

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

TTAKUN (H)ERRENKA

Barre edo negar

A

zalpen konplexuak ematen dira sarri demokrazia eta diktaduraren arteko aldea esplikatzeko. Filosofia

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

politikoak Aristoteles, Hobbes, Locke eta enparauei buruz hitz egingo dizu; zuzenbide adituak, zuzenbide estatuaren egitura erraldoi eta aspergarriaz zaizkizu mintzatuko. Azken asteotako gertakarien ondotik, oster, demokrazia eta diktaduraren arteko ezberdintasun funtsezkoa umorea dela iruditzen zait. Diktaduran gauza guztiak dira serio eta hotsandikoak; demokrazian, aldiz, halako parranda etengabe bat bizi dugu, iji eta aja, irri eta algara. Nola ulertu, bestela, Bilduren aferaren eta Bin Ladenen hilketaren harira esandakoak? Jose Luisek aipatu zuen maiz egon dela bere buruari inozenteen panpina jartzekotan, eta uste dut nik ere paper-guraizeak hartuko ditudala ttakuna amaitu bezain pronto.

Dudarik gabe, Sortu eta Bilduren inguruan esan diren aldrebeskeria guztiak jasota genero groteskoaren obra gailur bat edukiko genuke. Guztien artean, oster, batek egiten dit grazia gehien. Ezagun da euskal deituren luzera dela beren gauza nabarmenenetakoa. Belaustegi-goitia, Agirregomezkorta eta abar. Izen luzeetarako joera hori, bada, erakunde armatuetara igaro ei da, marka guztiak hautsiz: Etabatasunasozialistaabertzaleakubherritarren zerrendaukeraguztiakkehakdemokrazia3milioiaskatasunaanviniciativainternacionalistasortubilduyloquetoque. Hots, kolokialki, tertulia eta antzeko bakanaletan “ETA-Batasuna” edo “*los de siempre*” laburdurekin ezagun dena.

Baina, arestian aipatu bezala, esperpento honen mailakoa izan dira, halaber, Bin Ladeni buruz esandako ugari. Ohartuko zineten nola kontatu ziguten Pakistan iparraldeko “luxuzko fortin” batean bizi zela Osama. Eta jarraian

gotorlekuaren deskribapena eskaintzen ziguten: hiru metro lodi eta bost metro garai ziren hormak, alanbre ziztadunak, bi segurtasun-ate, kanporako leihorik ez, telefono eta Internetik ez. Bietako bat, edo donostiar ofizial ororen gisara pijo hutsa naiz, edo ez dut luxuaz tutik ere entenditzen.

Osama zaharraren baratza baitzirudien hark gehiago. Kazetariren bati aditu nion, luxuaren teoria indartze aldera, zinema areto bat ere bazegoela etxetik metro eskasera. Ezin izan nuen nire burua bridatu. Megaupload eta Megavideo ezean, zinemara joango al zen Bin Laden? *Avatar* ikusiko al zuen 3D betaurrekoekin? Palomitak jaten al zituen? Marrantahots etengabeak egiten dituzten agure gogai-karri horietako bat izango ote zen? Edo ondokoari filmean gertatuko denaren berri ematen dioten zapuztaile horietakoa? Edo “liburua hobe da” esaten dutenetakoa? Zenbatgarren ilara izango zuen gogokoen? Turbana kenduko al zuen atzekoari enbarazurik ez egiteko? Ze aurpegi jarri ote zuen *The Hurt Locker* (*En tierra hostil*/ *Démineurs*) filmaren trailerra ikustean?

Izan ere, hain ongi pintatu digute Abbottabad delakoa ezen nire buruari galdetzen baitiot ea filmak azpitoluekin botatzen dituzten, eta behin eskatzen hasita, goizeko emanaldiak ere egiten dituzten. Deskuidoan ikuslearen eguna ere badute. *Marina D’Or* hondoratu zenetik oporraldietan nora jo

jakin gabe ibili naiz, eta luxuak luxu, akaso *Geronimo’s Resort* alternatiba egokia izan daitekeela pentsatzen hasia naiz. Kantak durundi egiten dit buruan behin eta berriro: “Ez al duzu Pakistan aldera kafe bat hartzera joateko gogorik?” Paper-guraizeak alde batera utziko ditut momentuz. Maleta gurpildunari begiratu diot. Egongo al da Abbottabadeko *Lonely Plane*ak? ■

Jose Luisek aipatu zuen maiz egon dela
bere buruari inozenteen panpina
jartzekotan, eta uste dut nik ere
paper-guraizeak hartuko ditudala
ttakuna amaitu bezain pronto

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

EGIA ABSOLUTUA ADIERAZTEKO

ATZOTITZA:

BISTAN
DA!

GAURTITZA:

TELEBISTAN
DA!

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Aldaketa garaia?

Atzerritarren eta boto-eskubidearen aldaketa garaia al da? Datozen udal hauteskundeetan lehenengo aldiz Europar Batasuneko (EB) lurraldekoak ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahaliko dute. Hau dela eta, batzuek azpimarratu dute subiranotasun nazionalaren printzipioa zalantzan jartzen dela nolabait; beste batzuek, aldiz, hiritartasun transnazionalari bidea ireki zaiola. Goazen errealitatean atzerritarren boto-eskubidea nola gauzatuko den aztertzeraz.

Lehenik eta behin, esan beharra dago boto-eskubidea soilik udal hauteskundeetarako izango dela. Bigarrenik, boto-eskubidea lortzeko bi ate oso ezberdin daude. Lehenengoa EBko kideena, hauek nahiko dute eskubide hau erabiltzeko borondatea erakusten duen adierazpen formalaren entregatzea. EBz kanpokoek honako baldintzak bete behar dituzte: aurrekoek entregatu beharreko adierazpen formalaz gain, egoitza baimena edukitzea gutxienez bost urtez eta euren lurraldeak elkarrekikotasun-akordioa izatea Espainiarekin, espainiarren euren lurraldean bozkatzeko aukera ere izatea alegia. Hortaz, eta baldintza hauek kontuan harturik lurralde hauetako nazionalitatea dutenek bozkatu ahaliko dute: Bolivia, Txile, Kolonbia, Ekuador, Islandia, Norvegia, Zee-



INGO AZKONA

landa Berria, Paraguai, Peru eta Cabo Verde. Baina denbora luzez daramatenek soilik.

Baldintza hauek guztiek dezente baldintzatzen dute atzerritarren parte-hartze aukera. Horrela, EINEK (INE) eskaintzen dituen datuen arabera, estatu osoko atzerritarren hautesle-errola 465.661 pertsonen osatzen dute, hautesle-errola osoaren %1,3a da, EAEn datu hau are baxuagoa da, %0,7 hain zuzen ere. Ikusteke dago hauetatik zenbat joango diren bozkatzera. Aipatu beharreko beste elementua, bozkatzeko borondatea erakutsi dutenen artean, gehiengo nagusi bat EBko nazionalitatea duela da (%88,9 Espainian), eta zehazki, lehengo EB-12ko nazionalitateak. Halaber, bozkatu behar dutenek turismoari loturiko immigrazioa ordezkatzeko dute nagusiki eta ez hainbeste immigrazio ekonomikoari loturikoa.

Laburbilduz: sinbolikoki aldaketak dauden arren, praktikan aldaketa oso txikia da eta momentuz ez gaude subiranotasun nazionala zalantzan jartzeko zorian ezta hiritartasun transnazionala eraikitzeko zorian ere. Atzerritarren boto-eskubidean benetan eragiten duena espainiar nazionalitatea lortzea da. Adibide gisa, 2002-2010 urteetan nazionalizatutakoak 444.184 pertsona izan ziren, ia atzerritarren hautesle-errolako kopuru bera. ■

Sinbolikoki aldaketak dauden
arren, praktikan aldaketa oso
txikia da eta momentuz
ez gaude subiranotasun
nazionala zalantzan
jartzeko zorian

TXANDAN

Igor Estankona



Joxan Artzeri deitu nion, EIEko *Hegats* aldizkarirako Xabier Leteren gainean idatz zezan zer edo zer, artikulua bat, poema bat.

Idazketa eta orrazte lan astunekin zebilela esan zidan, liburu bateko piezei ordena bilatzen. Iruditu zitzaidan burua garbitzeko bota zidala aitzakia labur bihozbera, laster aitortu baitzidan egitortuan: “Ez naiz oraindik Xabierrekin egon”.

Leteren heriotzak lur jota utzi du Artze, oraindik ez ei daki zelan hurreratu beragana, nondik hasi bila. Lurdesen aurpegi gaztearekin egoten da,

Hitzaurrea

baina Leterekin ez du oraindik hitz egin.

Egia esan, jainkorik ez duten sinestuen mundua halakoxea da. Inor ez da betiko guztiz joaten. Pentsatu nuen kristauen antzera eman ziotela lur Leteri, baina fedegabe mistikoen ikuskera zabalekoa zela: “Belaze goitarretako argitasunean/ berreskura dezagula maitasun lehena/ brisarak gure bekokiak zimurrez garbitzean”.

Errua, oinazea, zoriona, beldurra eta salbazioa bizien ardura absurduak dira. Letek honez gero badaki. Egite onak eta txarrak baino ez daude. Eta lagunen ahotsa norberaren bila. ■

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Linbotik atera

Belaunaldi batekoa naiz zeinak pentsatu zuen mundua berreraikitze-ko ahalmena gure eskuetan zegoela. Nerabe ginen diktadorea hil zenean, eta, adin tarte horrek ematen duen kemenaz blai, gauzak aldatu zitezkeela sinestuta geunden. Eta zeregin horretan eman genuen urte mordoa, gure alorrean ekimenak bultzatuz eta egitasmoak sortzen. Dena egiteko zegoenez egiteari ekin genion. Adorez eta baikortasunez. Eta gaur egun arte jardun horri eskaini diogu gure denbora gehiena, bizitzan dauden beste gauza inportante batzuk nahikoa berandurako utziz.

Gaur egun beste egoera bat bizi dugu baina badago hasiera hartatik bizirik mantentzen zaigun tentsazio bat: gauzak oraindik egiteko daudela, sormen arloan bederen egiteko segitzen dutela. Denbora honetan guztian herri honek lehentasunak beste leku batzuetan kokatu ditu eta sorkuntza, Eliza katolikoak berak desagerrarazi duena, linbora kondenatu du. Eskuinaren instituzionalizazioak batetik eta ezkerrearen herrigintzaren planteamen-
duak bestetik inoren lekua betetzera eramanez du. Hori bai,



INES URRUTIA

denok euskararen alde. Euskara, euskarria, edukiaren gainetik kokatuz. Eta zertarako nahi dugu, bada, euskarri bat sormenik ezean, zer transmititurik ez badugu, modako hitza erabiltzeagatik?

Naizen belaunaldikoa izateagatik beharbada somatzen dut bizi dugun uneak baduela guk bizitako harekin antzik. Berriz ere aukerak zabalik ditugula. Badi-rudi gure banatzeko joerari batzearena gailentzen ari zaiola. Agian konturatu gara ez dagoela nahi duguna lortzeko beste biderik? Hala pentsatu nahi dut. Abertzale eta, ustez behintzat, ezkerrekoa sentituta itxaropentsu nago. Eta itxaropen hori ez zapuztea desio dut. Eta gustatuko litzaida-

ke batzea, oraindik ere gehiago gailentzea. Bidea egiten hasi behar dugu berriro eta hainbat alor berrantolatu beharko ditugu. Motxila bidaierako prestatu. Eta espero dut, berrantolaketa horretan, sorkuntza ez izatea motxilan daramagun soberazko pisua, baizik ahuleziak jotzen gaituenean piztu eta indarberrituko gaituzten intxaur, txokolat, edo barrita energetikoak, edo gaueko solasean entzuten diren historia eta istorioak. ■

«
Badirudi gure banatzeko joerari batzearena gailentzen ari zaiola. Agian konturatu gara ez dagoela nahi duguna lortzeko beste biderik? Hala pentsatu nahi dut. Abertzale eta, ustez behintzat, ezkerrekoa sentituta itxaropentsu nago
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gintuen Senpereko mundutar lakura itsasoratu behar larriak. Eguraldi hobetuak aurtengoak, ongi baliatuak. Eta metafora egokia iruditu zait Sustairena, Berri Txarrak-ek kantuz errepikatzen duena. Eta kantuek sortzean dituzten menpekotasunetatik bera baino libreago, igandeko urratsari lehortek jota dabilena-
ren hezegunerantzako ibilaldiaren antza hartzen diot nik. Nahiago nuke gure urratsak ari, ari, Toquero lehendakari basamortutik, presoak etxera oasiari buruz zuzenduko bagenitu, nahiz eta jakitun izan hortik itsasoa Kamerun baino urrunago gera-

Bildu

tzen zaigula. Pausaje gamelu baldartsuan ere, bidea egin egiten da *gepesea* lagun, norabide eta tarteko helmugak kide. Hezegunetik hezegunera, hornitzetik hornitzera kementsu, sortzeke dugun bizi hondartza gogoan bagoaz, hirugarren belaunaldia motxilatzen. Atzerantz so eginez, ez dira gutxi izan igarotako lehortek, ikusezinak, dunak paisaia zuloak talaia, basamortua erraustegi. Atez ate, auzoz auzo, herriz herri, bailaraz bailara basamortua hezegunetu ondorengoek itsasoa iritsi eta goza dezaten, gure ibilaldiak zentzu hornigarria izan dezan. Lasaitu ederra saskibaloian legez laugarren laurdena jokatzen ari garenontzat. ■

BERTSO BERRIAK

Imanol Lazkano

Kantauri bazter honetan



DANI BLANCO

I

Kantauri bazter honetan
antzina, oso aspaldi
mendi ta zuhaitz artean
harizti eta pagadi,
herri bat sortu ziguten
auskalo zenbat gizaldi
gureganaino heldua
belaunaldiz belaunaldi.
Espainia ta Frantziak
zapaltzaile bezain adi
loredi behar zuena
bihurtuaz arantzadi
isurrarazi digute
hainbat malko ta izardi...
herri txiki izatea
beti da arazo handi.

II

Francok herentzi gisara
utzi zuen monarkia
faxistek beren babes
izateko non aurkia.
Horrela eskertu zuen
bere morroi on aurkia
eta hauek baliatu
aitonaren aterkia,
bitartean itxi gabe
herriaren lubakia
aldez aurretikan ongi
pentsatu ta ebakia
beraz grazia ez dute
zeruetatik jaulkia:
batzuentzat debekua
besteentzako aulkia.

III

Batzuentzat Patxi deun
harek
joan aurretik zerura,
agur ere egin zuen
ohitura zuen modura:
“lotua ongi lotua”
esaldi famatu hura...
demokrazi makatz honi
txertatuaz diktadura.
Haueri mezua sartu
zitzaian barru-barrura:
bortizkeria guztiak
bihurtzeraino ohitura.
Saldu nahi diguten arren
demokratiko itxura...
oraindik ez da askatu
ezarri zuen lotura.

IV

Iraupen luzea dute
diktaduraren ahalmenak:
berekin dakarzukiela
eskubideen galmenak...
Nahiz eta ondorioak
diren nahiko nabarmenak,
harro mintzatzen zaizkigu
aginpidean daudenak:
oihukatuaz “gu gara
demokratarik onenak!
gure eskutikan datoz
etortzen diren on denak”...
Besteei eskatu arren
damuak eta kondenak
Fragak noiz gaitzetsi ditu
egin zituen krimenak?

V

Euskal Herri bedeinkatu,
polita bezain txukuna,
asabengandikan jaso
dugun herentzi kuttuna...
Bakoitzaren bihotzean
sinatutako ituna
izan dadila biharko
euskaldunentzat gutuna.
Egunsentiaren gose
beti da arrats iluna
guk ere amesten dugu
helduko dela eguna:
askatasun eguzkiak
argi egingo diguna...
Bortizkeria gabeko
Euskal Herri euskalduna.

DOINUA: Habanera.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Soinumapa Galduko ez diren hotsak

Euskal Herriko soinuak biltzen ditu Soinumapa webguneak (www.soinumapa.net). Egutero sortzen eta hiltzen dira soinuak, eta sareko artxibo honi esker gure iragana, oraina eta geroa ezagutzera eman nahi dute.

LANDER MUÑAGORRI

OLATUEN SOINUA, segalarien ahalegina, hegazkin baten lurreratzea, manifestazio bateko aldarrikapenak, edo ezkilen dilin-dalana. Euskal Herria soinuak beteta dago, egutero desagertzen eta sortzen diren soinuak. Horiek jasotzeko asmoz sortu zen soinumapa.net webgunea 2005. urtean. “Gure historiako argazki zaharrak biltzea garrantzitsua dela inork ez du ukatzen. Baina inoiz ez da soinu biltzetarik egiten, eta askotan iruditzen zait soinuek irudiek bezainbesteko gaitasuna dutela informazioa gordetzeko, eta askotan baita gehiago ere”, dio Xabier Erkizia Soinumapako kide eta musikariak. Argazki batek instant bateko errealitatea islatzen du, eta hots baten grabazioak, aldiz, informazio gehiago gordetzen du bere baitan. Horregatik, gure iragana, oraina eta geroa ezagutzeko, artxibo akustiko propioa edukitzea oso garrantzitsua dela dio Erkizia. Baina gure ondarea, kasu askotan, esku pribatuetan dago oraindik ere.

Hastapeneko soinuak

Musika munduko hainbat pertsona “lan egiteko beste modu bat garatzen” hasi zen, Erkiziaren hitzetan. Ingurune soinuak erregistratzeari ekin zioten, gero horiekin musika egiteko asmoz; baina ohartu ziren konposaketetarako erabiltzen zuten materiala baino gehiago pilatzen zitzaizela. Esku pribatuetan geratzen ari zen material hori guztia,

eta “beste pertsona batzuentzako interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen”, dio. Garai hartan, soinu artxiborik ere ez zegoen, “eta zeuden bakanak irratien esku zeuden”. Horregatik, denen eskura egongo zen artxiboa sortzeari ekin zioten.

Web 2.0ren sorrera garaia ziren, eta formatu hori interesgarria izan zitekeela pentsatu zuten. SoundTransit izeneko webgune holandar bat hartu zuten oinarri, “soinuen bidez bidaiatzea



Garai bateko soinu berreskuratuak

“Grabazioak teknikoki Euskal Herrian XX. mende hastapenetan hasi ziren arren, soinuak aspalditik erregistratzen dira, baina era ezberdinean”, dio Xabier Erkizia musikariak. Gogora ekarri du, esaterako, Victor Hugo idazle frantsesaren Pasaia deskribapena. “Soinu hutsa”, bere hitzetan. Edo Bitoriano Gandiagaren idatzi eta poemetan ere “soinuak ikaragarritzko garrantzia” daukala azpimarratzen du. Uneren bateko euskal gizartea irudikatzen duten soinu idatzien artxibo bat badugu beraz, kanpoko eta bertako literaturan. Baina horiez gain, artxibo akustiko aipagarria ere badaukagu gurean. Grabatuta dauden Euskal Herriko lehen soinuak 1900 ingurukoak baitira. Urte hartan Parisen egin zen erakusketa unibertsalean aurkeztu behar zuten fonografo batekin proba batzuk egin behar zirela eta, Hendaia, Irun eta Hondarribia ingurura etorri ziren bertako giro soinuak grabatzera. Gaur egun ordea, artxibo hori Austrian dago, “eta inork gutxi daki dokumentu hori badenik ere”, dio Erkizia. Lehen grabazio horri balio eskasa eman zaiola uste du, “ez daukagulako gure artean, eta ez dugulako entzun. Baina denoi interesatuko litzaiguke hots horiek entzutea”.

1950ko hamarkadan ere atzeritik etorri ziren gurea bertako soinuak grabatzera. Kasu honetan Alan Lomax musikari estatubatuarra gerturatu zen. Batez ere euskal musika erregistratu bazuen ere, kaleko giroa ere grabatu zuen. Orain dela gutxi argitaratu dira Lomax-ek Nafarroan eta Bizkaian grabatu zituen dokumentu haiek “Egiten ari garen lanaren aurrekaria izan zela esan daiteke”.

Gure garaira inguratuz, Nafarroako Unibertsitateko irakasle batek Iruñeko mapa akustikoa osatu zuen 1996an. Sarera ere igo zuen, “baina gaur egungo nabigatzaileek ez dute irakurri ere egiten”. Berarekin harremanetan jarri ziren Soinumapa egitasmoko partaideak, eta bere artxibo hori webgunera ekarriko dute laster.

Aitzindari hauen guztien soinuak batzeko lanetan ari dira Soinumapako kideak, “gure helburuetako bat baita artxibo pribatu horien inguruko berrikusketa egitea, eta ahal den heinean publiko bilakatzea”. Gaur egun teknika asko daude gure inguruko soinuak erregistratzeko, eta horregatik “gure belaunaldiari gertatu zitzaiona berriro gertatu ez dadin lan egingo dugu, soinuak erregistratzen eta denen eskura jartzen, hain zuzen”.

proposatzen zuen guñeak. Eta bertara igotako grabazioak erabiltzaileen parte hartzeari esker lortutakoak ziren”. Sistema hori oinarrian hartu eta sinplifikatu egin zuten “teknikoki ere ez baikin oso onak, eta ahal izan genuena egin genuen”. Hala ere, sortutako produktu berria sistema eraginkorra zen. Atzerian sortzen ari ziren antzeko proiektu ezberdinek interesa erakutsi zuten, eta webgunearen sistemari buruz galderak egiten zizkieten. Hori dela eta, hotsen mapak egiteko aplikazio bat sortu zuten, eta orduz geroztik hainbat webgunearen abiapuntua izan da Soinumapa.

Webgunearen formatua eta edukiak zehazten ari baziren ere, oraindik grabazioek izango zuten izaera nolakoa izango zen erabakitzeke zegoen, oso garbi ez zeukatelako. “Soinumaparen sorrerarekin bueltaka genbiltzala, Luz Maria San Gil mexikarraren lan batekin egin genuen topo Artelekuko mediatekan”. Bi diskoko bilduma zen, Euskal Herrian egindako grabazio ugariz osatua. Azaleko ohar batek hala zioen: “Etorkizunearan edonork soinu hauei edozein erabilera eman nahi izanez gero, libre da”. “Bere Creative Commons zigilu partikularra egin zuen”, dio Erkizia. Bilduma hori Soinumapak egi-

tasmoarentzako abiapuntua izan zen, ordura arte proiektuaren ideia lantzen ari baziren ere, hainbat puntu zehazteko baitzeuzkaten: nola etiketatu eta sailkatu, nola bildu... Eta disko horrek hainbat gako eman zizkien bide horretan.

Sistema martxan jarri zute-nean, erabiltzaileen interakzioa bilatu zuten Soinumapako kideek, eta Remapa izeneko egitasmoa sortu zuten. Bertan, musikariak webguneako grabazio bat hartu eta harekin abesti bat sortu behar zuten. Bakoi-tzak Soinumapatik artxibo bat hartzearen trukean, berak ere grabazio bat zintzilikatu beharra zeukan webgunean. Era

horretan, astero pieza berri bat sortuz, 33 abesti egin zituzten urtebeteko epean.

Sortzen diren soinuen bila

Gaur egun, ordea, Soinumapara bideratzen dituzte ahalegin guztiak, eta dagoeneko 600 grabaziotik gora daude webgunean, 60 pertsona ingururen borondatezko ekarpenaren ondorioz lortutakoak; eta parte hartzean oinarritutako proiektua den heinean, kopuru hori hazten joango dela espero dute.

Erabiltzaileek igotzen dituzten grabazioez gain, ordea, sei laguneko talde editoriala ere badu Soinumapak. Hiru hilabetero kanpaina

“Argazki zaharrak biltzea garrantzitsua dela inork ez du ukatzen. Baina inoiz ez da soinu bilketarik egiten, eta askotan iruditzen zait soinuek irudiek bezainbesteko gaitasuna dutela informazioa gordetzeko”

XABIER ERKIZIA

berriak antolatzen dituzte; esate baterako, orain dela gutxi inauterietako grabazioak biltzen aritu dira, eta pasa den udan, animalienekin egin zuten lan. “Horrek ez du esan nahi ordea, inauterietako edo animalien grabazio gehiago egingo ez ditugunik”, dio Erkizia. Izan ere, kanpaina horietatik aparte, erabiltzaileen grabazio ugari jasotzen dituzte, “eta denek daukate interes berezia guretzako”.

Etorkizunera begira, etengabe ari dira artxiboa handitzeko lanetan. “Egunero sortzen diren soinuak biltzea da gure helburua”, Erkiziaren hitzetan. “Badira beste mapa batzuk desagertzen ari diren hotsei erreparatzen dietenak, baina hori oso zaila da. Eta gainera arrisku bat du, soinua fetitxe bihurtu baitaiteke”.

Erkizia dioenez, berak zerbait grabatzen badu, interesgarria zaion zer edo zer entzun duelako da, “baina entzun duzun hori ez da berriz ere errepikatuko. Horrek frustrazio



Xabier Erkizia da Soinumapa proiektuko arduradunetako bat. Argazkian, grabatu ostean webgunera kargatuko dituen soinuak “ehizatzen” ari da.

puntu bat sortzen du, baina era berean, erne egotera ere behartzen zaitu”. Berak dioen bezala, mikrofonoarekin lan egitea berandu iristearen artea baita. ■

IREKI BIDEA EZKERRARI

Bozkatu aralar

BAKEARI EUSKARARI EUSKAL HERRIARI POLITIKARI

Liburuak

KRITIKA

Orgasmus. Batzuen artean.
Txalaparta. 230 orrialde. 17,5 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Terriblea iruditzen zait

ORGASMUS irakurri dut eta liburua bera baino adierazgarriago iruditu zait liburu honen inguruan hautsak harrotu nahian sorturiko gatazka. Liburua irakurri aurretik, bazen gauza pare bat, irakurketa erakargarri batetik urruntzen ninduen: enkarguko gauza izatea, batetik; eta bestetik, ipuin antologia izatea. Ipuingintzaren inguruan Julio Cortazarrek esaten zuen eleberriak, boxeoan bezala puntuka irabazten zuela irakurlea, eta ipuinak, berriz, *knock-out* batekin.

Beraz, ipuinak kolpez irabazi behar du irakurlea. Eta hori hain da zaila... Normalean, nago ipuin antologietatik, hori, bakarren batzuek besterik ez dutela lortzen, poesia liburuetan gertatzen den bezalaxe; eta enkarguz denean, zer esanik ez. Haratx, laburbilduz ipuin bildumak enegan sorturiko inpresioa.

Liburua hamaika emakume idazlek idatzi dute. Gaia: Erasmus. Literatur sistema guztietan idazleen kolektiboak sortzen dira, gurean horren lekuko: Pott, Lubaki, Tropelekoak eta, itsumustuan, Erasmus neskak. Euren hitzetan nahiago *Orgasmus* Erasmus baino, eta horren inguruan esandakoak liburuaren aurkezpenean "orgasmus belaunaldia"-ren arkeologia baterako irakurketa proposamenen bildu dituzte.

Niri terriblea iruditzen zait. Baina nik esan beharrekoak www.uberan.org webgunean oso ondo jasoak daude. Bertan Iraitz Urkulok *El Correo*n egindako iruzkinari ihardespen jariora etorri baitzaio Iratxe Esnaola idazlearen lumatik eta Josune Muñoz kritikari feministaren literatur irizpideetatik.

Kontua da emakume idazleek lubakietatik ateratzea lortzen dutenean, hau da, geure literatur sisteman % 15 izatea apenas lortzen dutenean, demaseko mediatizazioa eta booma dagoela esaten da. Eta, gainera, lotsagabeki izenak ematen dira. Nago emakumeak idazten ari direla, emakumeak unibertsitateetan literatur klaseak ematen ari direla eta nago emakume gutxi batzuk ikerlari lanetan ari direla eta ondorioz, ikusezin zena ikusgarri bihurtu dela; eta horri booma esaten zaio, gizonetzkoena naturala den modu berebean. Emakumeak idazten ari dira, gutxi batzuk dira eta gainera, gutxi horien artean batzuen batzuk oso luma dotorea dute; eta literatur bizia egiten ari dira; eta literaturari beste ikuspegi bat, beste begirada berri bat eransten ari dira. Eta hori ez da booma. Pixkanaka-pixkanaka, emakumeak negualditik ateratzen ari dira San Jose loreak bezala eta horren aurrean aukera hagitx dago: harriak bota, ez ikusiarena egin eta berriro ere negualdira kondanatu, edo modu naturalean udaberriak eskaintzen duen paisaiari begiratu, hor baitago kolore eztanda, hor elutsetik eguterrara pasa ahal izateko pasahitza. ■

Elgoibarko ahozko euskarari buruz

Euskaltzaindiaren Iker bilduman publikatu da Jesus Mari Makazagaren *Elgoibarko ahozko euskara* liburua. Lan mardula da, akademikoa, Elgoibarko euskara hainbat alorretatik aztertzen duena: fonologia, izenaren morfologia, sintaxia, esaerak, esapideak eta interjekzioak, hiztegia, testuak eta, horiek guztiek aztertuta, atera dituen ondorioak.



Elgoibarko ahozko euskara.
J. M. Makazaga.
Euskaltzaindia.
624 orrialde. 18 euro.

Pello Salaburuk liburuaren hitzaurrean dioenez, mota honetako lanak garrantzitsuak dira, belaunaldiz belaunaldi hitz egiteko moduak aldatzen baitira, eta ezinbestean, batzuk galtzen. Salaburuk dioenez, liburu hau datu-bilketatik harago doa ordea, eta kriterio handiz osatu du Makazagak. ■

36ko gerrari buruzko hamaika testigantza

Aitor Azurki kazetari donostiarrak osatu du *Maizales bajo la lluvia* liburua. Hamaika lagun testigantzak bildu ditu, denak ere 1936ko gerran gudari eta miliziano izandakoenak. Beraien kontakizunen bidez heriotzak, fusilamenduak, bombardaketak... ikusiko ditugu, bertan egongo bagina bezala, 70 urte baino gehiago pasa ez balira bezala. Eta jabetuko gara, gerra amaitu zen arren, galtzaile izatea tokatu zitzaizen arren, hamaika borrokalari hauek ez zirela inoiz ere errenditu. Memoria kolektiboa lantzeko balio dezake liburuak, baina baita bertako protagonisten ideiak gogora ekartzeko ere. Azken finean, horiek baitira Francok inoiz garaitu ez zituenak. ■



Maizales bajo la lluvia.
Aitor Azurki.
Alberdania.
492 orrialde.
26,50 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



En la zona cero.
Vómito.
Potencial Hardcore.
Iraupena: 38'10".
7 euro.

Gitarrek gidatutako amorrazioa, egiazkoa

DONOSTIA ETA IRUN ARTEAN kokatutako talde beteranoak urte askotako etenaldia egin zuen Victor abeslaria hil ostean, nahiz eta apur batean Radio Terror proiektuarekin nolabaiteko jarraipena egin. Azken urteotan baina, berrargitaratutako kanta batzuek jaso zuten harrerak mamua berpiztu eta bueltan ditugu, oso sasoi onean, lehen besteko gaztetasuna eta amorrua barruan dutela. Hala ere, Vomitok ez du disko bera birritan egiten eta taldearen

marka den kutsu ilun eta siniestroak indarrean jarraitzen badu ere, gitarrei are eta garrantzia handiagoa eman diete oraingoan; eta gai izan dira amorrazioz beteriko punk-rockaz gain, rock urbanoa, metala eta ukitu industrialak lantzeko. Hitzetan, berriz, gizakiak bere kabuz lantzen diharduen hondamendia eta norberak daukan alde ilunena, ezkorrena, jorratu dituzte.

www.myspace.com/vomitosocialsite

Claus Groten - Vómito

«Punka batez ere jarrera da: errebeldia eta zure bidea eraikitzea»

Zer helbururekin itzuli da Vomito krimenaren gunera?

Gerra ematen jarraitzeko asmoarekin eta jakina, inola ere ez iraganean egingakoaren truke bizitzeko. Gure helburua ez da inoiz izan orain dela hamabost urteko kanta jotzeko itzultzea. Tartean gaixotasuna, zorigaitza, heriotza eta mina agertu ez balira, Vomitok ez zuen halako etenaldi luzerik egingo.

Krimenaren gunea oso aldatuta aurkitu duzue itzultzerakoan?

Harrigarriena izan da erreferentzia taldea bilakatu garena jakitea. Itzuli ginetik bi urtean 60 kontzertutik gora egin ditugu eta ikaragarria izan da, sinesgaitza. Bestalde, oso garai gogorak bizi ditugu, erdi ezkutuan baina indar-indarrean dagoen faxismoak gidatzen dituenak. Horregatik, gero eta arrazoi gehiago daude bide zuzenetik



aldendu eta sormena erabilita ahalik eta ostia txar handiena ateratzeko. Gaur egun jende asko da horren jakitun, eta edozein eguntan ezinegonak eta frustrazioak bolbora moduan su har dezakete.

Musika estiloei dagokienez, oso irekiak izan zarete beti...

Bai, geldigorrak gara eta inoiz ez dugu aurrekoaren disko berdinek

egin nahi izan; horrek neurri batean sailkagaitzak egiten gaitu. Baina beti ahalegintzen gara lan energiko eta intentsuak grabatzen; eta istorioak kontatzeko gure estilo propioa izaten.

Punkak ezinbestean behar du arrisku kutsua, ezta?

Bai, bestela ez litzateke punka izango, beste zer-bait izango zen. Estiloari dagokionez, oso irekia da eta horrek aberastu egiten du. Punka batez ere jarre-

ra da: errebeldia eta zure bidea eraikitzea dira ezaugarri nagusienak.

Dagoeneko gazte "nagusitxoak" zarete, baina "suarekin jolasteko gogo" ez zaizue kendu. Zer dauka suak, hain erakargarria izateko?

Berotzen zaitu, iratzartzen zaitu eta bizirik sentiarazten zaitu. Horrez gain, hipnotikoa ere bada eta errespetua ezartzen dizu. ■

Ezpalak

JON TORNER

Sobietar Batasunaren 50 urteak, Dmitri Baltermants-en begiekin



BILBOKO ALONDE-
GIAN SESBren 50
urteak Dmitri Bal-
termants-en ikuspuntutik
argazki erakusketa
izango da ikusgai
ekainaren 29ra arte.
Dmitri Baltermants
(1912-1990) Arma-
da Gorriko kapitai-
na izan zen. Mosku-
ko Unibertsitateko

Mekanika eta Matematika Fakultatean graduatu eta Akademia Militarreko Matematika irakaslea izan zen. 1939an lortu zuen bere lehenengo argazkilari-lan profesionaia, *Izvestia* egunkari sobietar nagusirako. Tropa sobietarrak Mendebaldeko Ukrainara iritsi ziren unea argazkitan hartzera bidali zuten eta emaitza ikusita, *Izvestiak* argazkilari lanpostua eman zion. Hurrengo 50 urteetan atera zituen ia 200 argazki jaso ditu Bilbo-ko Alondegiak. Bigarren Mundu Gerrako argazkiak, SESBeko agintarien erretratuak eta eguneroko bizi-modua erakusten duten irudiak aurki daitezke.

Bidenabar, eraikin berean ekainaren 29ra arte *Ipar Korea: Historiaren Zama* erakusketak iruditzen jasoko du herrialde horrek 1953an armistizioa sinatu zenetik gaurdaino garatu duen ekoizpen grafikoa.

‘Karrikan’ kale ikuskizuna sortu du Kukai taldeak

HIRU KOREOGRAFIA uztartuta *Karrikan* izeneko dantza ikuskizuna prestatu du Kukai Dantza Konpainiak. Kukaik kalera ateratzeko landutako hirugarren lana da, *Tanpadak* eta *Soka* izeneko ondotik. Taldekideek garrantzitsutzat jotzen dute publikoarengana hurbiltzea, “jendea dantza ikustera ohitzeko eta sentsibilizatzeke”, Jon Maia lanaren zuzendari eta dantzariaren hitzetan. Euskal tradizioan jatorria duten hiru gai proposatu dizkiete hiru koreografo garaikideri lan berria osatzeko, anitza eta estilo nahasikoa. Sei dantzarik eta DJ batek eskainiko dute emanaldia. Datorren saioa hilaren 20an eskainiko dute Donostiako Victoria Eugenia Club aretoan, 21:00etan.

Zilarrezko Euskadi Saririk ez du emango aurten Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak. Liburuaren Nazioarteko Egunean gehien saldutako liburuak hartzen ditu kontuan, baina aurten saririk ez ematea erabaki du, liburu gutxi saldu delako egun horretan. Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23a izan zen eta liburu-saltzaileen gremioak dioenez, larunbat santu izateak gutxi saltzea eragin zuen, besteak beste Donostian urtero egin ohi den Liburuaren Azoka ez zelako egin. Iaz Imanol Murua Uriak idatzitako *Loiolako begiak* liburuak jaso zuen euskarazko liburuari zegokion Zilarrezko Euskadi Saria.

Arantxa Iturbek eta Agurtzane Intxaurreagak irabazi dute Max antzerki saria, Euskal Autore onenaren sailean, *Aitarekin bidaian* obrarekin. Kordoban (Espainia) egindako sari banaketan gogoan izan zituzten antzezlanak taularatzen duten Hika Teatroako hiru aktoreak: Javier Muguruza, Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza (argazkian ageri dira hiruak). Amaren heriotzarekin, aita-seme batzuek elkar ezagutzeko sentitzen duten beharraz dihardu antzerki lanak. Alfredo de Etxaberen *Mirentxu* eta Jon Urrazaren *Eta bestela ondo, ezta?* lanak ziren gainerako bi hautagaiak.



EUSKARABA.COM

● **Aitor Aurrekoetxea EHuko filosofia irakasle eta arte kritikariak Garan:** «Ez da nahastu behar estetika eta kosmetika. Anglosaxoiek oso argi dute kosmetika gauza bat dela, hau da, itxura fisikoari lotutako zainketa, eta gure artean hori nahastuta agertzen da. (...) Arteak konfiguratu egiten gaitu pertsona bezala, ikuspuntu ezberdin bat ematen digu. Gaur egun, badirudi inork ez duela arteaz ulertzen, baina, aldi berean, mistizismoz inguratuta dago, prestigioa ematen du. Gure gizarte posmoderno honetan arteak bere tokia topatu du, ez nik nahi nukeen tokia».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Sotilki, baina beldurrik gabe

TASIO, SECRETOS DEL CORAZÓN EDOTA *OBABA* filmetan erakutsi zuen estilo sotil berarekin heldu dio Montxo Armendarizek gai arantzatsua jorratzen duen bere azken lanari: txikitatik aitzak bortsatu duen neskaren istorioa. Silvia protagonistaren begiradak gidatzen du filma uneoro, eta bere egunerokoak, detaile txikiak, keinuek, begiratuek, jarrerek... emango digute atzean ezkutatzaren errealitate latzaren berri, irudi morbosotara eta dramatismo hanpatura jo beharrik gabe. Bai, fintasun eta kontu handiarekin aurkeztu du gaia zuzendariak, erritmo pausatuz, kontatzeko duen modu pertsonalarekin, egungo zinemari hainbatetan darion arrapaladako estetikari muzin eginez. Baina istorioaren garraztasuna ere ez du saihestu, ez da erori gehiegizko samurkerian; besterik gabe, ikusleoi utzi digu gure ondorioak ateratzen. Hala, gauza handia lortu du zuzendari nafarrak: ikuslea butakan deseroso sentiaraztea, zirrara eta benetako emozioa probokatzea, horretarako odola, negarra eta efektismo merkea baliatu barik.

Silviaren pertsonaiari zor zaio hori, hein handi batean. Protagonistak biolontxeloan, jokoan eta txikitako lagunarengan bilatzen du beste inorengan topatzen ez duen babesa. Amak nahiago du ezikusiarrena egin, eta aitarenenganako maitasun-gorroto-beldur sentimendu kontrajarriak ditu gazteak. Ikusleak Silvia ulertu dezake hainbatetan, jokaera okerra duela irudi-



tuko zaio bestetan; ihes egiteko, isilik ez geratzeko, zaplazteko bat emateko... oihukatuko lioke behin baino gehiagotan. Pertsonaia konplexua eta ñabarduraz betea eraiki du zuzendariak, bortsaketaren esperientzia gogor eta mingarriak eragiten duen nahasmenduaren adierazgarri. Aita eta gainontzeko pertsonaiak ere sinesgarriak eta estereotipoetatik aldentuta irudikatu ditu.

Nabarmentzekoak dira, azkenik, soinu banda eta eszenografia. Biolontxelorako konposatutako Manuel de Fallaren eta gehienbat Bach-en obrak Silviaren barne munduaren isla aproposa dira.

Iruñeak, berriz, protagonismo berezia hartzen du: beti Silviaren ikuspegiari leial, ezkutaleku, labirinto, gotorleku, kartzela... bihurtuko da, maisuki irudikatua. Hain juxtu, film gehienak Nafarroan errodatu ditu Armendarizek, baina mezu harrigarria zabaldu du duela gutxi Facebook sare sozialaren bidez: "Argi dago inor ez dela aintzat hartua bere herrian. Ez dut uste berriz Nafarroan errodatuko dudarik". Gure jake-mina aseko duten arrazoi zehatzak aurrerago emango omen ditu. ■

No tengas miedo. Zuzendaria: Montxo Armendariz.
Gidoia: M. Armendariz, Maria Laura Gargarella.
Aktoreak: Michelle Jenner, Lluís Homar, Belén Rueda.
Drama. 90 min. Euskal Herria, 2011.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.


Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zenbait karta jokotan, hurrenkeraren arabera lehen jokatzeari egokitzen zaiona. Omena, sona. 2. Azido sulfurosoaren gatz. Mila eta bostehun, erromatar zenbakiz. 3. Portu. Alboka, saiheska. 4. Motozikleta eta bizikletaren koadroaren osagaia. Aurrikizki ekologista. 5. Bi mila, zenbaki erromatarrez. Laino. Nekatu. 6. Eako biztanle. **Argazkian.** 7. Nafarroako herria. Era hartan bertan. 8. Otoitz bukaeran esaten den hitza. Handiustea, handitasun gaitzesgarria.

Goitik behera:

1. Norbaiten esku dagoen aginpidea edo erabakimena. 2. Bolboraren leherketa-indarrak baliatzen den arma. 3. Klaskaren kideko hots. Errepikatuz, loguraren eulia. 4. Interjekzioa. Bizitasunik gabe. 5. Distira. 6. Otoz ..., ezustean. Rhesus faktorea. 7. Diru. Norbait goratzeko egiten den oihua. 8. Lirain. 9. Andrekoi, gonazale. 10. Agur. Ore jangarri. 11. Barazki hostotsuak. 12. Karrika. 13. Bailara, haran. 14. Garraiobide. 15. Bizkaian, ilea.

Heroi errusiarrak

Tropa errusiarrak Afganistanetik ateratzera zihoazenean, agintari sobietarrek erabaki zuten azken soldadu erretan bat utzi behar zutela Kabuln bertan, zer gerta ere.

Inork ez zuela nahiko uste bazuten ere, boluntarioak eskatu zituzten. Proposamena aipatu orduko, Vladimir Mamontov eta Ivan Gorokhov soldaduek eskua jaso duten.

Halako eskuzabaltasuna eta adorea ikusita, Semyonovich jeneralak haxe galdetu zien, begiak malkotan:

– Egia da beraz, biak prest zaudetela Kabuln geratzeko?

– Da! Jeneral kamarada!

– Prest zaudete beraz zuen bizitza arriskuan jartzeko, amerikar inperialismoak aurrera egin ez dezan?

– Da! Jeneral kamarada!

– Jakin ezazue, biok sobietarren kemena eta ausardia sinbolizatzen duzuen bi heroizaretela, eta gertatzen dena gertatzen dela ere, heroien kondekorazioak merezi dituzuela. Zuen sakrifizioarako prestutasunaren berri eman behar diegu zuen herrikerideei! Nongoak zarete?

– Txernobyngoak, jeneral kamarada!

Sudokuak

Erraza

		5		1	3			
	2			5	9	4	8	
			2		6			5
						6	3	2
5	3	6				7	4	1
2	4	7						
9			6		8			
	5	8	4	2			9	
			1	9		2		

Zaila

7		2		3		4		
		6	2					
			7	6	4		5	
8		4	6					
		3	9		5	2		
					3	5		4
	1		4	9	7			
					2	3		
		7		5		1		9

Soluzioak

3	7	4	1	6	5	2	8	9
6	9	5	8	4	2	7	1	3
9	1	2	6	3	8	5	7	4
2	4	7	3	9	6	1	5	8
5	3	5	9	8	2	7	4	1
8	6	1	5	7	4	6	3	2
7	8	9	2	4	6	3	1	5
1	2	3	7	5	9	4	8	6
4	6	5	8	1	3	9	2	7

Erraza

Zaila

2	8	7	3	5	6	1	4	9
4	6	9	1	8	2	3	7	5
3	1	5	4	9	7	6	2	8
9	2	1	8	7	3	5	6	4
6	7	3	9	4	5	2	8	1
8	5	4	6	2	1	7	9	3
1	3	8	7	6	4	9	5	2
5	6	2	1	9	8	3	7	4
7	9	2	5	3	8	4	1	6

Ezker-eskuin: 1. Eskua, Ospeta. 2. Sultiro, MD. 3. Kai, Sotela. 4. Urtia, Eko. 5. Mm, Lanbro, Akim. 6. Eatar, Idiazabal. 7. Suarbei, Halaxe. 8. Amen, Handikerta. **Goitik behera:** 1. Eskumena. 2. Suarna. 3. Kiki. Tsc. 4. Uf, Ilaun. 5. Isara. 6. Oron, Rh. 7. Sos, Biba. 8. Ierdan. 9. Emakot. 10. Adio, Ahi. 11. Azak. 12. Kale. 13. Ibar. 14. Taxt. 15. Ulea.



Selektibitatea eta Baxoa

Unibertsitaterako sarbide irizpideak

ezbaian



Mahai-ingurua

Josu Agirre ♦ Maria Luisa Jaussi ♦ J. F. Lukas

Iritziak

Gillermo Etxebarria ♦ José Ramón Flecha

- Nola baldintzatzen dute Batxilergoa?
- Zer neurtzen duten eta zer ez hautapropa hauek.
- Nolako ikasleak bideratzen dituzte unibertsitatera eta nolakoak behar dira?
- Prozesuaren eta ebaluazioaren arteko oreka.
- Boloniaren eragina.

Datorren astean

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


Anti-atomoak 1.000 segundotan

GENEVAKO CERN ikerketa-zentroko ikerlariek anti-hidrogenozko atomoek hamazazpi minutuz irautea lortu dute, ALPHA izeneko saiakeratan. Lortu diren atomoek elektroi positibo bat eta protoi negatibo bat zituzten, hidrogeno atomo baten aurkakoa hain zuzen ere.

Zientzialarien ustetan, Big Bang-aren ondoren materia eta antimateria

kantitate berdinetan sortu ziren, baina egungo unibertsoa materiaz osaturik dago; antimateria desagertu egin zen. Eta usteak ustel izaten dira frogak aurkitzen ez diren bitartean.

Esan bezala, 1.000 segundotan eskutetan izan dute zientzialariek anti-hidrogenoa. Etorkizunean denbora luzeagoan izatea espero dutenez, antimateria desagertzeko duen joera hobeto ulertuko dutelakoan daude.



NOSEQ.COM

Sony, hackerren esku

PLAYSTATION-A ERABILTZEN DUTENEK badakite jada euren datu pertsonalak, Sonyk izateaz gain, ezezagunen esku ere egon daitezkeela.

Apirilaren 20an, Playstation 3 delakoa atzitzeko zerbitzaria "mantenuan" zegoela iragartzen hasi zen. Egoera horrek uste baino gehiago iraun zuenez, Sonyk ezin izan zuen luzaroan sekretua ezkutatu, hots, apirilaren 18an eta 19an hackerren erasoak jasan zuela eta haiek 77 milioi erabiltzailearen datu pertsonalak kopia zituztela, horien artean 2,2 milioi kreditu-txartel.

Baina historia honek jarraipena izan zuen maiatzaren 2an, Sonyk iragarri zuenean berea den SOE zerbitzua ere apirilaren 16an erasotua izan zela, eta ia 25 milioi erabiltzailearen datu pertsonalak, 12.700 kontu korrante barne, bateren batek kopia zituela.

Segurtasun informatikoaren alorrean lan egiten duen Ponemon Instituten enpresa estatubatuarraren arabera, milaka milioi dolarreko galera izango du Sonyk gertatutakoaren ondorioz, isunak, indemnizazioak, sistema informatikoen berrezarpenak... kontuan hartuta.



PLAYSTATION®
Network

Snapled, eskumuturreko ordenagailu eramangarria

Human Media Lab laborategiko ikerlariek eskumuturrean, ordularia izango balitz bezala, eraman daitekeen ordenagailu malgua aurkeztu dute. Tinta elektronikorekin funtzionatzen du eta telefono deiak egiteko ahalmena ere badu.

<http://ttiki.com/27422> (Gaztelaniaz)

Gero eta izotz gutxiago Artikoa

Neguan, Artikoko izotz-geruza handituz joaten da, eta udaberrian txikitzen hasi. Aurten, joan den martxoaren 7an lortu da izotz-eremurik zabalena; hori neurketak hasi zirenez geroztik txikiena izan da, 2006koaren antzekoa.

<http://ttiki.com/27423> (Gaztelaniaz)

Lurraren berokuntzaren eragina uztetan

Azken 30 urteotan gari eta arto uztak %5 inguru txikitu dira, eta soja eta arrozarenak, berriz, beren horretan mantendu dira, *Science* aldizkarian argitaratu diren zenbait ikerketaren arabera. Uzta txikitzeak eta salneurrien igoetzeak batera joaten diren elementuak dira. Honen guztiaren jatorrian Lurraren beroketa dagoela uste dute ikerlariek.

<http://ttiki.com/27424> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lazuna eta asuna

URETAKO ASTAPERREXILA, *Cicuta virosa*, bere pozoia- rekin arriskurik gabe, onik, uste osoko, errio bazterre- ko penditzean dotore makurtzen da ur gezetara eta gazietara. Goseak amorratzen ibiliagatik, ur horietan egunero gora eta behera dabilen traineru- ko eskifaiak izkin egin- go dio, jo eta hau- tsian olatuaren бага harrapatzen saiatu- ko da beregandik alde egin nahian. Arraunlariak ez dio ez berehalakoan kosk egingo eta jangosea beste non edo non ase beharko du. Baita ur beretako lazunak edo korrokoia ere; bertara asko du jausi egin eta hozka heltzeko, baina beste aldera begiratu eta, zuri-zuri, lagun balu bezala, isatsaren zilarraz adio esan- go dio. Goseak amorratzen hau ere, astaperrexila utzi eta asunetara joan beharko du lazunak, esatera zahar- rak ere hala dio: “Ezin duenak lazuna, jo begi abuan asuna”.

Ez dute hauzko-moduzko begia, ez arraunlariak, ezta lazunak ere. Bataren zein bestearen geneetan txertatutako kultura heredatuak argi dio: uretako asta- perrexil pusketa ziztrin bat nahikoa da batena zein

bestearena egiteko, gramo bakar bat bizipisu kiloko nahikoa da. Libra erdi batek behor eder bat ere han- kaz gora jarriko luke. Zikutoxina du izena nerbio-sis- tema zentrala eten eta hondatzen duen pozoia mala- partatuak. Malapartatu edo zorioneko? Landarearentzat dohatsu!

Behor jendeak ondo jaso du genee- tan uretako astaperrexil honen koadrila, larrean ahoratu ordu- rako jo eta garbituko lukee- na. Era askotako pozoia- tzeak harrapa dezake azienda hau: apatxe- tako gaitza (gaze- lerazko *infosura* edo frantseseko *fourbure*) topatu izan da, adibidez, *Juglans nigra* intxaurrondo bel- tza edo amerikanoa- ren txirbilarekin egindako azpiak dituzten behorretan. Baina

baita anemia, nefrosia edo giltzurrunak alferrik gal- tzea —esaterako, *Acer rubrum* astigar gorriaren hosto iharrak janda—, zianuro pozoidura, eta abar. *Taxus baccata*, hagina ezaguna da gure artzain eta behortzai- nen artean, amaren batean akabatzen baitu behorrik sendoena ere.



1900

Urte honetan Wilbur L. Scoville jaunak piperren berotasuna neurtzeko era bat asmatu zuen. Piper bakoitzaren pikantea neu- tralizatzeko zenbat ur gozo behar zen neurtuz osatu zuen piperren bero eskala. 1980az geroztik pre- sio handiko kromatografia likidoaren bitartez egi- ten da, baina hala eta ere, eskalaren neurria Scoville unitateetan ematen da. Piperren beroaren eskala onartuena 1998an Kaliforniako Unibertsitateak argitaratutako *Peppers: Safe Methods to Store, Preserve, and Enjoy* liburuan agertzen dena da. Bertan izen- datutako mundu osoko 36 piperren artean beroena “Habaneroa” da, eta gozoena “Italiarra”.



BASKIMAGEN



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



giroa

Lorazaintza eta Paisajismoa

- Kanpo eta barneko lorategien diseinu eta gauzatzea
- Mantenua
- Dena, tekniko baten gidaritzapean

Ruben Sabalza Hernaez *Nekazal Injenieru Teknikoa*
Urdaneta,5 · 20800 Zarautz · 657 719 685


Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Kremailera kostata itxi zuten



HARPERS WEEKLY



ANTONIO ACEVEDO

Ezkerretik eskuinera: Elias Howe, kremaileraren antzeko mekanismo bat patentatu zuen lehena; erdian, Gideon Sundbacken patentea, kremailera modernoaren oso antzekoa, eta Whitcomb Judsonen urte batzuk lehenago merkaturatutako asmakizuna hobetu zuena; eta azkenik, kremailera moderno bat.

NEW YORK, 1851. Elias Howe asmaitzaileak “arroparentzako itxitura automatiko jarraitua” patentatu zuen. Urte batzuk lehenago Walter Huntetik asmatutako josteko makina hobetu eta lehenengoz patentatu zuen Howek. Eta, beharbada, tramankulu hark merkaturatzea izan zuen arrakastak aseta, edo beste asmakizun horren erabilera argi ikusten ez zuelako, kremailera primitibo hura ez merkaturatzea erabaki zuen. Hala, “kremaileraren aita” ofiziala izateari uko egin zion.

40 urte baino gehiago joan ziren 1893an Whitcomb Judsonen antzeko “itxigailua” patentatu arte. Bi asmakizunak oso antzekoak ziren, baina Judsonen erabilera zehatza eman zion –botak ixtea– eta merkaturatzea erabaki zuen. 1893ko Chicagoko Erakusketa Unibertsalean aurkeztu zuen tresna konplexua; Universal Fastener Company etxea hura ekoizten hasi zen, baina ez zuen eroslerik topatu.

1906an, Suedian jaiotako Gideon Sundback elektrizitate ingeniaria Universal Fastener Companyn hasi

zen lanean, Judsonen patentea eskuratu zuen enpresa berean. Diseinuan trebea izateak eta enpresako buruaren alaba Elvira Aronsonekin ezkondu izanak, 1909an konpainiako diseinu-buru izatera eraman zuten. Besteak beste, batere praktikoa ez zen Judsonen itxigailua hobetzea zuen helburu. Tresna errazago ixtea lortu zuten, baina berriro irekitzea oso gaitza zen eta asmakizuna, hiru garrenez, baztertuta geratu zen. 1911n, suediarren emaztea hil egin zen eta, dolu betean, Sundbackek buru-belarri jardun zuen asmakizuna hobetzen. Bi urteko lan obsesiboaren emaitza kremailera modernoa izan zen. Kremailera fabrikatzeko makina ere berak asmatu zuen.

Asmakizun praktikoa zen, merke ekoiztu zitekeen, baina urtetan gomazko bota eta tabako zorro gutxi batzuk ixtera mugatu zen, 1937an Parisko jostun batek gizonezkoen galtzetan jartzea erabaki zuen arte. Pentsak, orduan, zegoeneko 86 urte zeuzkan asmakizun hura “jostintzako ideia berritzaileena” zela esan zuen.

Arrastoak

Antzinako Egipton protesiak erabiltzen zituzten

HATZ LODIAREN forma duten bi pieza daude –bata Kairoko Egiptoar Museoan eta bestea Londreseko Britainia Museoan–, biak K.a 1.000 eta 600 urteen artean datatuak. Bi apendizak momiatan aurkitu zituzten eta, horregatik, gorputzei momifikatzean, hau da, hil ondoren erantsi zizkietela uste zuten adituek. Baina Jacky Finch Manchesterreko Unibertsitateko ikerlariak behatzok bizirik zeudela erabili zituztela uste du. Hipotesia frogatzeko Finchek piezen erreplika zehatzak egin zituen eta atzamar lodirik ez zuten boluntarioei ipini zizkien. Antzinako egiptoarren ohiko sandaliak jantzita eta piezak erantsita eroso ibiltzea lortu zuten. Ibiltzen laguntzeaz gain, material sendoz eginak daude, itxura errealista dute eta jartzeko errazak dira. Horrenbestez, protesiak erabiltzen lehenak egiptoarrak izan zirela frogatu du Finchek, eta ez erromatarrak, orain arte uste bezala.



UNIVERSITY OF MANCHESTER

Luxorren induskatutako hilobi batean aurkitutako protesia, Kairoko Egiptoar Museoan.

Juan Mari Ollora

«Penduluaren garaia agortu zaio EAJri»

Gasteiz. 1949. Ekonomialaria. Kontsultore lanetan dihardu egun. EAJko kidea da. Senataria eta diputatua izana Madrilen. Arabako diputatu nagusia eta legebiltzarkidea Gasteizen. EAJren EBBko kide ohia. Arzalluzen eta Ibarretxeren ildoan aritu zen Lizarra-Garaziko Akordioan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Iñigo Azkona

LIZARRA-GARAZIKO garaian “Joseba Egibar alderdiaren ideologoarekin, Juan Mari Ollorarekin azaldu zen...” irakurri genuen. Hitza hartu digu: “Hori hedabideek idatzia da, nik ez dut izendapen hori merezi. Gainera, EAJ ez da orri ibilbideak egiteko zalea, ezta estrategikoki pentsatzeko zalea ere. Agian aldatu da, ni ez naiz makina salan azken hamabi urteotan egon”.

Hogeita hamar urte jardun zenuen politikan. Nola gogoratzen duzu esperientzia?

Politikan denetan egon nintzen: kudeaketan, ogasun diputatua, diputatu nagusia... Senatari eta diputatua ere Madrilen, legebiltzarkidea Gasteizen. Denetan baina ez nintzen dena izan, noski. ABBk diputatu nagusigai izendatu ninduenean, “ez dut bakarrik argazkian atera nahi, ogasunean aritu nahi dut, horretaz baitakit...” esan nuen xalotasunez. EBBn ere aritu nintzen, Xabier Arzalluzekin, gustura, aberasgarria izan zen. Haatik, garbi nuen politikatik alde egin behar nuela, politikak berak ni bota aurretik.

Hori da zure ikasgaietako bat.

Bai. Nire urteek politika egiteko molde zehatz batekin bat egin zuten, gerora aldatu zirenak. Une berriak ziren, gauza asko egin ziren, gero, bizitzan legez, bilakabidearen poderioz aldatuz doazenak. Politikan egon nintzen denbora nahikoa izan zen lilura ez galtzeko.

Itzultzeko asmorik ez, orduan?

Nik garbi daukat: zu alderdiaren eta politikaren disposizioan zaude, baina zure denbora pasa da. Ez zaituzte itxaroten, ez deitu ere. Gainera ohartu naiz hori alderdi guztietan gertatzen dela. Eta hori akats handia da. Ez da dezepzio bat. Horrela da. Alderdiek eta instituzioek galtzen dute. Adibidez,



“Prozesu hau atzeraezina da”

“Herrialde garatua da gurea. Azken hogeita hamar urteotako gure politika biolentzia praktikatu duen —eta babes politikoa duen— mugimendu batekin garatu duena. Horrek Estatuaren baitan erreakzio gaiztoak sorrarazi ditu. Estatu demokratizaren ertzean ibili da, mugan, berme demokratikoak galdu ditu, eta batez ere, arrasto txarra sortu du mentalitate eta jokabideetan, sendatzeko denbora asko beharko duena.

Ezker abertzaleak gogoeta egin du azkenik. ETaren jardura lekuz kanpo dagoela dio. Prozesu hau atzeraezina da, eta ez bada, zatiketaren potentzialtasunak barnerratuak izango dituzte, edo bideratuak. IRAren kasuan, IRA Benetakoarekin gertatu bezala. Ezker abertzalearen osagai zentrala

fidel bazaio biolentziarik gabeko proiektu bati, hondar ekintzek ez dute etorkizunik. Ez dut ezagutzen mundu hori, indarren oreka ere ez, baina mugimenduaren gidaritzaren daramatenak konbentzitu daude ez dagoela beste biderik. Hauteskundeetan parte-hartzeak —eta emaitzek— indartuko dute beren apustua.

Independentzia —nik ez dut ikusiko— bide horretatik etorriko da, konbentzimendu demokratikoaren bidez, bestela ez. Pentsamendu hori ezker abertzalearen soziologian gehiengo bilakatzen ari da egun. Noski, beti daude trabak, esaterako, politikaren jardura erabat profesionalizatu da, hori ere arazoa da. Dena den, euskal mundu nazionalistaren proiektuarentzat denbora politik datoz”.

ABBko buru Iñaki Generrabarena-ekin ez dut hitz egin behin ere harrezkero, tira behin, gestio pertsonal bat egiteko. Iñigo Urkullurekin ere ez. Horrela da. Ez da ezer pasatzen.

Bildu hauteskundeetan izango da.

Eta ni ados eta gustura Bilduren parte-hartzearekin, noski. Hartara, modu artifizialean erauzi zutena, hauteskunde osten mapa berrosatuko da. Funtsean, horrek egoera demokratikoago bat ekarriko du, ikasgai bezala baliatu behar duguna. Estatuak, herrialde garrantzuetan, biolentzia sostengatzen duen fenomeno sozio-politiko batekin jardun behar duenean demokraziak nola erreakzionatu duen esperientziatik ikasi behar dugu. Geroan ere, Espainiako egiturako nazioei Estatuak jarriko dien erresistentzia maila ezagutze-ko baliatu behar dugu esperientzia. Espainia prest al dago soziologia nazionalistaren erresistentzia mailaz gogoetatzeko eta diferentzia onartzeko? Diferentzia funtsean gure proiektuak eta helburu politikoak dira. Beraz, Espainiako Estatuak, estatu nazio anitza asumitzeko prest al dago?

Artean, Iñigo Urkulluk esan du EAJk Bilduren parte-hartzeko bere ekarria egin duela.

Ez daukat informaziorik. Iñigo Urkulluk gainera esan du, gauzak batzuk kontatu daitezkeela eta beste batzuk ez. Egia izango da. EAJk hartu duen jarrera duina izan da.

Nola aurreikusten dituzu hauteskundeak?

Bilduk leherketa elektoralera eragingo duela uste dut, espresio indartsua izango da. Kanpainak ez dakit nola eragingo duen, baina uste dut, programek ez dutela asko eragingo, hautagaien ibilbide pertsonalek era-

“Askorentzat ETaren existentzia koartada izan da jarrera definituak hartzeko orduan, baina denbora hau agortzen ari da”

gin handia izango dute, baina, oroz gain, normalizazio irrika gailenduko da, fase berri batean sartzeko gogo dago, eta hori hobeto biltzen duena Bildu da. Bilduren arrakasta elektoralera ikusten dut, baina, batez ere,

ezker abertzalearen arrazoiz kargaturiko apustua izango da, eszenatoki berri batera joateko bide itzulezina, bakea ekarriko duena, ETaren amaiera ekarriko duena.

EAJ, zure alderdia, berriz?

EAJk Bilduren lehertzearen eragina jasango du. Baina, hasteko, mapa politiko erreala osatuko da, erreala goa, bakoitzak zein indar duen ikusteko. Bigarren eragin bat ere badago, EAJrentzat positiboa, PSE-PPren ituna konplikatuko da. Aliantzen eremua zabalduko da, denentzat zabaldu ere.

Abertzaleen hautagaitzak ordea, asko dira hauteskundeetan.

Bai, tamalez. Orain azalduko den mapa politikoa behin-behinekoa izango da. Bost urtera begirako horizonte politikoa hasten da, eta hau guztia nola bukatzen den ikusiko dugu. Uste dut, aukera nazionalistaren espresio anitzen gazte eta politikari buru berriek, baita EAJkoek ere, mundu nazionalistaren aurrean desafio itzela dutela. Gauza izan behar dute batzen gaituzten puntuen oinarriak finkatzeko, zein minimoetan ados gauden argitzeko. Hori da, gizarte nazionalista zibilak eskatzen duena. Hori da desafioa.

Nafarroako egoera politikoa zer iradokitzen dizu?

Nafarroako politika ez dut hainbeste ezagutzen, baina, nazionalismoak oinarri minimoen beharra badauka, Nafarroan areago. Desafioa Nafarroan handiagoa da eta lehenbailehen ekin behar diote egoera berriari. Alabaina, Euskal Herriko arazo politikoa konpontzeko desafioa irabazi behar badute, herritarrek konbentzitu behar dituzte, ez dago beste biderik.

Estatuan berriz, PSOEren eta PPren lehiak zer ekar lezake?

PSOEk izango dituen emaitzen arabera, Zapatero ordezkatzeko nahikoa lan dauka etxean. Espainiako Gobernurako hautagai eta alderdiaren liderra nor den erabaki behar dute, eta ez dago tentsiorik gabe hori egiten duen alderdirik ez erakunderik, tentsioak izango dituzte.

PPk, artean, arerioaren degradazio azkarra bilatuko du datorren urteko hauteskunde orokorretara baldintza egokienean iristeko.

Euskal gaiak eragingo al du horretan?

Noski, eragingo du norabide batean edo bestean. PSOEk gaiari egoki heltzen badio ondo aterako da, bestela etorkizun zaila dauka.

Ezker abertzaleak hartu duen norabidea nola ikusten duzu?

Ezker abertzalea zuzentzen dutenen konbentzimendua erabatekoa da ibilbide berrian, konpromisoa ere bai. Beren barnetik sortutako prozesua delako; ezin zen besterik izan. Eta iritsi da, posible izan denean, antza denez. Nire pena da Lizarra-Garaziko Akordio garaian, neronek parte hartu nuenekoa, edo Loiolan, aurrera atera ez izana. Baina, funtsean, hori euren arazoa izan zen.

Bake eta normalizazio prozesu berri batean al gaude?

Mahai azpian kontaktuak direnents, nik ideiarik ez. Baina hauteskunde hauen ondoren izango diren emaitzekin, Sortu edo bestela deituko den alderdi berriarekin, ezker abertzaleak nortasun propioa izango du, eta politika egitean denek ispilu aurrean beste modu batez jarri eta begiratu beharko dute. Askorentzat ETAre existentzia koartada izan da jarrera definituak hartzeko orduan, baina denbora hau agortzen ari da.

Askorentzat, esan nahi baita...

Baita EAJrentzat ere.

Nola ikusten duzu EAJ datorren eszenatoki berrian?

Galdera funtsezkoak egin beharrekin, erabaki garrantzitsuek hartzeko behararekin, penduluaren denbora bukatu da. EAJk erabaki estrategiko inportanteak hartu beharko ditu, lanerako kolaborazio jarrera berriak, bestela, gertaerek gaitutuko dute. Gizartea, batez ere gizarte nazionalista, funtsezko planteamenduak onartzeko prest dago, independentziarena barne, eta gainera soseguz onartzeko. Bestela esanda, datorren garai politikoa ez da transferentzia bat



“Gizartea, batez ere gizarte nazionalista, funtsezko planteamenduak onartzeko prest dago, independentziarena barne, eta gainera soseguz onartzeko”.

gehiago edo gutxiagoren arabera garatuko.

PPk Madrilgo Gobernua berrartuko balu, oraingo jarrerari eutsiko al lioke?

Bada, ez dakit, ez dut uste. Baina, hori ezker abertzaleak eta orobat euskal nazionalismoak akordioak sortzeko izango duen ahalmenaren arabera izango da. Eta horretarako hitz egin behar da, eta oraindik desconfiantza dago. Funtsean, denoi ahoa betetzen zaigu “gehien-go soziala gara” delakoarekin, baina nazionalismoaren historia zatiketaren historia da, zatiketa eternoa. Gaur egungo mapa horren lekuko. Zenbat aukera nazionalista dago hauteskundeotan? Lau edo. Beraz, alderdi hauen belaunaldi eta agintari berrien lehen betebeharra oinarri minimoak ezartzea da. Hortik aurrera, oinarritzko batasuna lortuta, taktikoki pentsatu daiteke aldaketan. Baina gauden bezala egonda...

EAJri betebehara berezia al dagokio, akaso?

Betebehara asko dauka, eta horietan

ko bat lehendakari izendatzea da, lidergo identifikatu bat, eta hobe du urtea bukatu baino lehen ebaztea, eta irailerako bada are hobeto. Bizi dugun ilusio egoerarekin identifikatzen den lider argi bat behar du, jendea eramateko ahalmena duena, eta EAJk ez dauka, Urkullurekiko nire errespetu guztiekin.

Juan Jose Ibarretxe izan liteke?

Juanjo Ibarretxe, nire iritziz noski, garai berrietarako EAJren lider egokiena litzateke. Besterik da berak itzuli nahi izatea.

Arestian EAJren pendulu ezaugarria aipatu duzu. Sakonduko al zenuke apur bat gehiago?

Bai. Bi aritmetikako alderdia bukatu da, gorantz doan mugimendu independentistak –independentzia mahai gainean ezartzen duena– definitzea eskatuko baitio, eta horregatik lider ideala Ibarretxe da. Beno, beste bat ez bada ateratzen. Baliteke izatea, baina nik ez dut eza gutzen. ■

argia.com

Arabako politikari buruzko aburuak.

Finantza krisia

Konponbide iraultzailea Islandian

Krisialdi ekonomikoak kolpatutako herrialdeen artean, Islandia izan da konponbide propioa, originala eta, beraz, iraultzailea topatu duen bakarra. Erreferendum bidez, erantzukizuna krisiaren benetako errudunei, bankuei egotzi diete eta bankuetako arduradunak atxilotu eta epaitu dituzte.

DANIEL UDALAITZ

NATO



Islandia izan zen 2008an finantza krisia nozitzen lehena. Irudian NDFren kredituaren kontra islandiarrak protestan.

KONPONBIDE BATEN BILA ari dira lanean azken urteetako finantza eta ekonomia krisiak kaltetutako herrialdeak. Gehienek krisiaren zama herri-tarren gainera bota dute, gizarte eskubideak murriztuta, eta finantza entitateak salbatu dituzte, krisiaren benetako errudunei diru publikoa injektatuta. Aitzitik, Islandiak,

320.000 biztanle inguru besterik ez dituen iparraldeko herrialde txikiak, konponbide iraultzailea aukeratu du: herritarrei, erreferendum bidez, bankuen porrota ordaintzeari ala ez ordaintzeari buruz galdetzea. Islandiarrak dagoeneko bi erreferendum egin dituzte, bata, 2009ko abenduan eta bestea, iragan apirilean, eta beren

bankuen zorrak ordaindu nahi ez dituztela esan dute. Gainera, bankarien jarduera ikertzeko eskatu dute eta, behar izanez gero, baita bankariak espetxeratzeko ere. Eta Islandiako gobernuak, orain arte, herri-tarren nahia bete du. Islandiako banku nagusietako baten presidentea Londresen duen etxadian atxilotu zuten.

Islandia, bankari bihurtutako arrantzaleak

XX. mendearen hasieran, Islandia Europako herrialde-rik pobreena zen. 320.000 biztanle ditu, eta Europaren, AEBen eta zirkulu polarraren artean dago. Muturreko klima eta geografia ditu, baita Europako tradizio demo-kratikorik zaharrenetakoa ere. 1980ko hamarkadan gobernuak arrantza pribatizatu zuen: kuotatan zatitu zuen eta, ondorioz, arrantzale gutxi batzuk asko aberas-
tu ziren. Ronald Reagan eta Margaret Thatcherren era-
ginpean, herrialdea eredu liberalaren gailur bihurtu zen. Politika ekonomikoan zerga baxuak, pribatizazioak edota erregulaziorik eza nagusi ziren. *Per capita* ira-
bazkinak munduko altuenetakoa izatera iritsi ziren, langabezia %1ean egonkortu zen, eta herrialdeak ener-
gia berdean, aluminioaren industrian eta goi mailako teknologian inbertitu zuen.

Bilakaera hori XXI. mendean burutu zen, bankuak pribatizatu zituztenean. Bankariak herrialde barruan nahiz atzerrian hedatzen hasi ziren. Horretarako "arra-
zoi" bikainak zituzten: finantza erregulaziorik ez zegoen, interes tasak %15ekoak ziren, eta horrek Alemaniako



FISHERMAN.IS

erretirodunak eta Herbehereetako salerosleak erakarri zituen. Bankuak erotu egin ziren: bankuen aktiboak herrialdearen BPGa baino 12 aldiz handiagoak izatera iritsi ziren, burtsaren balioa 9 aldiz hazi zen 2003tik 2007ra, etxebizitzaren prezioa hirukoiztu egin zen. Hon-
damena sekulakoa izan zen. Inflazioak eztanda egin zuen, BPG %15 jaitsi zen, bankuek 100.000 milioi dolar galdu zituzten, eta islandiarrak aberats izaten jarraitu zuten, baina lehen baino askoz gutxiago.

Islandia AEBetako krisiaren aurrekaria

Islandiako krisialdia 2008an hasi zen, gero Europan eta munduko gainerako herrialdeetan hedatuko zen AEBetako finantza sistemaren krisia piztu baino lehen. Bi krisien ezaugarriak oso antzekoak dira: banku sistemaren gehiegikeriak, diruzalekeria eta jarduera publiko eta pribatu okerrak, ustelkeria barne. Islandiako analista eta herri-
tar askoren ustez, krisia gutxi batzuek egindako arpilatzea izan zen.

Analista horien arabera, arpila-
tzea 30 pertsona inguruk antolatu zuten: dozena bat bankarik, enpre-
sari gutxi batzuek eta esku bete politikarik. Islandiako 63 parlamen-
tarietatik hamarrek, 1944tik agin-
tean egon den alderdiko bi buruek barne, 10 milioi euroko mailegu
pertsonal bana zuten. Horrek guz-
tiak eten zuen munduko *per capita* irabazkinik altuenetakoa izatea lortu
zuen ekonomiaren goraldia.

Icesave-k banku guztien porrota eragin zuen

Islandiako krisiaren kasurik nabar-
menena Lansbanski, Islandiako banku nagusietakoaren Icesave ize-
neko Interneteko adarrarena izan da. Interes tasa altuko aurrezki kon-
-

tua eskaintzen zuen, %15 inguru-
koa, eta horrek Britainia Handiko eta Herbehereetako aurreztaile asko
(medikuak, salerosleak, erretirodu-
nak) erakarri zituen. Gobernu brit-
tainiarrak bankua kapitalak sorterrir-
ratzen hasi zela antzeman zuen, eta
funtsak izozteko terrorismoaren aurkako legea ezarri zion. Horrexek

Arpilatzea 30 pertsona inguruk antolatu zuten: dozena bat bankarik, enpresario gutxi batzuek eta esku bete politikarik

piztu zuen krisia, banku guztiek sai-
lean porrot egitea eragin baitzuen. Herbehereetako eta Erresuma
Batuko gobernuak gordailuen %100 itzuli zizkieten aurreztaileei,
eta orain Islandiari diru hori ordain-
tzeko eskatu diote: 4.000 milioi
euro, Islandiako BPGren herena.

Gizartearen mobilizazioa eta erreferenduma

Islandiako gobernuak akordia lortu
zuen herritarrek zorra 15 urtetan eta %5,5eko interesarekin ordain
zezaten. Baina herritarrak antolatu
egin ziren, eta akordioa bertan
behera utzi zuten, 2009ko abendu-

ko erreferendumean ezezkoak botoen %90 bildu ondoren. Biga-
rrerak akordioa hobea zen -%3ko
interes tasa eta 37 urtetan ordain-
tzeko aukera-, baina herritarrek,
apirilaren 10ean egin berri den erre-
ferendumean, berriro atzera bota
dute. Hala, garbi adierazi dute ez
daudela prest bankuen gehiegike-
riak ordaintzeko.

Eva Joly magistratu ohi eta parla-
mentari frantziarrari bankuak iker-
tzeko eskatu zioten, eta zera adiera-
zi du: "Islandiarrak mirari
neoliberalizat zuten beren herrial-
dea, politikarekiko interesa erabat
galdua zuten, eta deigarria da orain
herritarrek patua beren eskuetan
eduki nahi izatea". Islandiarren
jarrerak izan ditzakeen ondorioak
ezin dira aurreikusi, baina jarrera
horri eutsiz gero, Islandia Europar
Batasunean sartzea asko zailduko
litzateke. Gainera, Erresuma Batu-
ko eta Herbehereetako gobernuak
Islandia nazioarteko auzitegietara
eramaten ahaleginduko dira. Gobernu horiek aurka izan arren,
Olafur Ragnar Grimson Islandiako
presidenteak, berak deitutako bi
erreferendumei esker, "2008an
Islandiako ekonomia amildu zenean
galdutako konfiantza berreskuratu"
dutela dio. Bere ustez, emaitzek
"demokrazia indartzen dute". ■

Irigoienazpikoa egitasmoa

IKTak eta hedabideak behatzeko gunea

1.300 metro koadroko eraikina izango du Irigoienazpikoa egitasmoak Andoainen (Gipuzkoa). Andoaingo Udala eta Larramendi Bazkuna dira eragile nagusiak. Euskarazko IKTak eta hedabideak proiektuaren ardatz nagusi izatea nahi dute.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

EUSKARA BIZIBERRITZEKO erronka nagusiak zeintzuk dira? Galdera horren harira hausnarketa egin dute Andoaingo Udalak eta Larramendi Bazkunak Irigoienazpikoa egitasmoak zer izan beharko lukeen zehazteko. Eragileek garbi daukate: euskalgintza euskararen erabilera esparruek kezkutzen dute, eta horietako eremu garrantzitsu bat komunikazioarena da. Komunikazioa letra larriz idatzi dute, muga lausoak onartuz. Egitasmoa batez ere IKTei (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) eta orokorrean hedabideei begira prestatu dute. Eskualde mailatik harago doazen eta komunikazioarekin lotura duten ekintzek izango dute tokia.

Egitasmoa euskaratik euskarara egindakoa izango da, baina joan-etorria ezinbestekotzat dute. Alegia, komunikazioaren esparru zaballean hizkuntza ez hegemonikoak zertan ari diren begiratu nahi da, haiengandik ikasteko dagoena Andoaingo egoitzara ekartzeko, eta aldi berean, hemen daukaguna haiei eskaintzeko. Egitasmoa, zentzu zabalean hartuta, hizkuntza ez hegemonikoen

jakintza trukerako gunea da, bereziki, komunikazioaren alorrean.


Iban Arantzabal Goienako antolaketa zuzendaria da eta Irigoienazpikoa egitasmoa idatzi du. Bere ustez, askotan ingelesez zer egiten duten begira ibiltzen gara. “Haien lilurapean, haien mimetismoz, euskarazko produktuak egiten ditugu.

Horri begira egon behar gara, baina hori al da gure eredu? Gure moduko hizkuntzetan badaude gauza dezente erabilgarriagoak eta arrakastatsuagoak izan daitezkeenak. Hor dago gure joko zelaia eta ez Telecincoko programa eredu bat hartu eta euskaraz emanda”.

Urte amaierarako dena zehaztuta

Irigoienazpikoa egitasmoaren sorrerako eragileak Andoaingo Udala eta Larramendi Bazkuna dira. Geroago, hausnarketa garaian, bat egin zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere gonbidapena jaso du. Gai honi lotuta apirilean Andoainen egindako mintegian bi erakunde publikoek hartu zuten parte. Dena den, egitasmoa oso aurreratuta badago ere, oraindik hainbat kontu garrantzitsu zehazteko dago. Eraikina pentsatutako edukietara moldatu eta zaharberritzeko aurreproiektu arkitektonikoa egin dago. Egitelke dagoena da bideragarritasun—ekonomikoa eta antolaketakoa, besteak beste— txostena, eta formazio juridikoa, hau da, fundazio, elkarte edo nolako egituraketa izango duen proiektuak. Sorrerako bi

I ARANTZABAL



Beheko solairua kontuan izanda lau solairuko eraikina izango da Irigoienazpikoa. Besteak beste, taberna, laborategia eta telebista platoa izango ditu.

EUKOA, merkatu ikerketarako enpresa

Irigoienazpikoa egitasmoaren apustu garrantzitsuen da EUKOA (Euskal Komunikabideen Audientziak). Euskarazko hedabideen audientziak neurtuko ditu EUKOAK, zenbatekoak eta nolakotasuna. Egitasmoa idazteko ardura izan duen Iban Arantzabalaren ustez, "neurketa batzuk egiten dira euskarazko komunikabideetan, baina ez dira ez nahikoa, eta batzuetan, ezta oso zientifikoak ere. Susmoen arabera gabilta hedabideak eta batzuetan asmatzen dugu eta besteetan ez. EUKOA sortuz ez dugu ezer asmatu, beste hizkuntzetan badira horrelako enpresak, baina euskarazko merkaturako ez geneukan halakorik". Irabazi asmorik gabeko enpresa izango da eta independentea. Sektoreko enpresak eta erakundeak izango dira jabeak. Eskualde mailatik gorako Euskal Herri osoko hedabideekin lan egiteko ahalmena izango du. Ez dute baztertu herri handietako hedabideei ere aukera ematea.

eragileek adierazi dutenez, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, erakunde pribatuak, unibertsitateak eta euskarazko komunikazioaren sektorea ondoan nahiko lituzkete. Zehazteko dagoen guztia 2011 bukatu baino lehen borobilduko da.

Taberna eta laborategia

1.300 metro karratuko eraikinean lau solairutan egongo dira banatuta bulegoak, gelak eta bestelakoak. Espazio bakoitzaren erabilera zehaztuta dago.

Egitasmoaren gune zentrala laborategi-platoa izango da. Hiz-



Irigoienazpikoa egitasmoa gauzatuko den eraikina Andoaingo Udalarena da eta zaharberritzeko dago.

kuntza ez hegemonikoen ikerkuntza gunea izatea nahi dute eragileek, teoriatik praktikara jauzi egiteko aukera izatea. Bi zati izango ditu gune horrek. Batetik, erabilera libreko gunea egongo da, ispilu

Tabernara zerbait hartzera hurbildu direnak laborategian informazio bila edo jolasean aritu daitezke. Behatzaileek erabilera horiek aztertzeke aukera izango dute

polarizatuz inguratuta. Horrek esan nahi du eremu horretan ibiliko diren erabiltzaileak behatu egingo dituztela. Eremu hori IKT aparailuz jantzia egongo da: prentsa digitala irakurtzeko gailuak, liburu

irakurgailuak (e-bookak, iPada), bideo jokoak... Esate baterako, tabernara zerbait hartzera hurbildu direnak laborategi horretan informazio bila edo jolasean aritu daitezke. Behatzaileek erabilera horiek aztertzeke aukera izango dute. Bestetik, pre-zero programak egiteko platoa egongo da. Baliabide gutxiarekin prestatutako platoa izango da eta haren funtzioa telebistarako edo Internetarako saioak sortu nahian dabiltzanek lehen probak egiteko modua izatea da. Azken finean, laborategiak eta platoak unibertsitateei, teknologia enpresei, hedabideei, ikasleei eta abarri probaleku moduan balioko diete.

Gune nagusi horrez gain, Larra-mendi Bazkunaren bulego zentralak, 111 Akademiaren bulego-liburategia, mintegi eta jardunaldietarako lekua, taberna, jatetxea eta ostatua izango ditu eraikinak. ■

Babeslea: Bermeoko Udal

Geurien be bai

Enpresa, merkataritza eta elkarteetan euskara sustatzen

KALINPAN

BERMEOKO UDALA Euskara Saila

Geurien be bai

'Estatu etnozidaren kontra'

JOXE MANUEL ODRIOZOLAK *Estatu etnozidaren kontra* izenburuko liburua argitaratu du Elkar argitaletxearekin. Hizkuntzak ditu ardatz eta estatuek haien kultura eta hizkuntzak nola inposatzen dituzten azaltzen du. Era berean, menpean hartutako hizkuntzek biziberritzeko zein aukera dituzten kontatzen du.

Frantxua Maitia EEPko presidente

ONDO BIDEZ, maiatzaren 26an ofizialki adieraziko dute Euskararen

Erakunde Publikoko presidente berria Frantxua Maitia sozialista izango dela. Sei urtez Max Brisson UMPko kontseilariak bete du toki hori. EEPko presidente kargua txandakatu egiten da eta horretarako alderdien arteko adostasuna lortu behar izaten da.

Mintza Eguna Elizondon

TOPAGUNEAK, Euskara Elkartearen Federazioak, Mintza Eguna antolatu du ekainaren 4an. Seigarren edizioa izango da eta egun osorako egitaraua dute prest.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Beti dago dirua gerrarako

Finantza eta ekonomia krisiaren erdian, gobernu guztiek diote ez dagoe la dirudik pentsioak mantentzeko, langabezia laguntzeko, hezkuntzarentzat, osasunarentzat... eta ez dute zalantzarik egiten bisturia sartzeko herri sektoreetan min gehien egiten duen lekuan. Oso gogor murrizten da gastu soziala. Hainbat herrialdetan ikusi dugu, eta Euskal Herrian ere jasaten dugu egoera hori, Madrilan, Parisen eta Bruselaren menpe ego-nik. Dena den, badago kapitulu bat inoiz ukitzen ez dena: gastu militarra eta armatarako inbertsioa. Estokolmoko Bakearen Ikerketarako Nazioar-teko Institutuaren arabera, munduko gastu militarrek 2009ko 1,5 bilioi dolarrek gainditu zituen 2010ean, eguneko 4.200 milioi dolar, alegia.

2011n datu berriagoak azaldu dira –Libiako gerra dela-eta–, tesi hori baieztatzen dutenak, hau da, gastu sozialerako ez, baina gerrarako dirua badagoela. Bi adibide: AEBek Libiaren kontra jaurtitzen duten Tomahawk kruzero misil bakoitzarekin milioi bat euro gastatzen dute, aditu militarren arabera. Gerraren lehen hiru asteetan 500 misil inguru jaurti zituzten. Soilik misiletan, hiru astetan, 500 milioi euro gastatu zituzten. Euren abioiek hegan egindako ordu bakoitzarekin 20.000 euro baino gehiago gastatu dira. Kalkulatu itzazue hegaldi orduak eta joan milioi euroak gehitzen. Espainiako Estatuaren kasuan, iturri ofizialen arabera, Libian duen airezko dispositibo guztiak 43 milioi euro kosta lezake hiru hilabetetan. Espainiako kongresuak emandako datuek diotenez, Espainiako ejertzitoak 2010ean kanpoan izan-dako misioen kostu ekonomikoa, 788 milioi eurokoa izan zen. Afganistan-go da misiorik garestiena: 464 milioi euro. Gastu sozialak bat-batean murrizten dituzte, eta era berean, dirua dago gerrarako, diru asko... Eta bio-lentzia kondentatzen dutela esaten dutenek aitortzen dute hori.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Osasungoa Euskalduntzeko Elkarteko kide Roberto Manjonek Jakinen esanak: “[Osakidetza] Euskararen normalizazioa agintetik ahalik eta gehien urrundu denez, hainbat erakundetan ostrazismora bidali da, edo indiarren erreserbara, eta eskuarki, erabakiguneetatik baztertuta egin da. Horren ondorioz, planaren gauzatze maila epidermikoak izan da gehienetan, halako moduan non erabileran funtsezkoak edo oso eragingarriak diren neurriak hartu gabe gertatu baitira”.

Leire Narbaizak Kalamuatik Txargainera blogean esanak: “Ez deza-gun geure burua engainatu, horretara etorri zaizkigu ikasleak, ehuneko ika-ragarri handi bat bai, behintzat. Paper zati baten bila, lana lortzen edo lagunduko omen diena. Perfildunez bete EAE, irlandarizaioaren bidean: independentzia barik eta hizkuntza ere maila-probetan galduta”.

Jose Antonio Dorronsorok Salda bero blogean esanak: “Trudipena daukat gaur egungo euskaltegien eredu-a zaharkituta geratu dela, sakoneko gaurlotzea eta hizkuntzara era informalean hurbiltzeko modu pedagogiko berriak arakatzea eska-tzen du. Euskaldunberriak “armai-rutik” atera behar ditugu, hizkuntza osoki ezagutzen ez badute ere, oina-rrizko ideiak badauzkate eta horiek arakatu eta baliatu behar ditugu”.

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Kanpaina motela, baina baketsuena

HAUTESKUNDE kanpaina azken txanpan da dagoeneko eta alderdiek ere denbora gutxi dute hautesleak beren sareetara erakartzeko. Azken hamarkadako hauteskunde beroetako batzuk gogora ekarrita, hau oso hotza dela aipa liteke, nahiz eta –Auzitegi Konstituzionalaren erabakiaren ondorioz– bere hasiera hamarkada osoko beroena izan zen. Baina berehala galdu zuen erritmoa, bai behintzat 2001. urteko EAEko Eusko Legebiltzarreko kanpaina hura gogora ekarriz. Mayor Oreja eta Redondo-Terrerosen aliantza hark, inoizko garaipenik handiena eman zion EAJri, Juan Jose Ibarretxeren eskutik.

2005eko Eusko Legebiltzarrekoek ere izan zuten mamirik, batez ere, 2002an Batasuna legez kanpo geratu ondoren, EHAK harrien azpitik atera zelako eta bederatzi parlamentari lortu zituelako. Ilegalizazio kontuak medio, 2007ko udal hauteskundeetako kanpaina hasiera tentsio handikoa izan zen: orduan, Konstituzionalaren erabakia salomonikoa izan zen: EAE-ANVko hautagaitzen erdia aurkez zitekeen eta erdia ez. Nafarroa Bairen aurreikuspen onek ere, kanpaina bapo berotu zuten Nafarroan. NaBairen emaitza onak bete ziren eta are beroago izan zen gobernu alternatiboa eratzeo saiakera.

2009ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde kanpaina ere ez zen txantxetakoak izan, ezker abertzalea legez kanpo, PPK eta PSE-EEk lehenbiziz Eusko Jaurlaritza hartzeko aukera zuten. Eta hauteskundeak jeltzaleek irabazi bazituzten ere, Patxi Lopez lehendakartzara iritsi zen. 2011ko hauek, aldiz, Bilduren hauteskundeak dira, bai ilegalizazio saioa tartean izan delako eta bai polo soberanistaren lehen aurkezpen saioa ere badelako.

Eta hasierako tentsioen ondoren, esan liteke hauteskunde hauek izan



direla 2002tik gaurdaino izan diren lasaienak. Eta ez da izango puntu berorik ez dagoelako. Nafarroan, esate baterako, abertzaleen artean NaBai eta Bilduren arteko tentsio handiagoa espero zen, baina ez; badirudi, alde biek onartu dutela bakoitza berean zentratzea dela errentagarriena, eta aurrera begira elkarlanerako espazioak zaindu beharko dituztela. Inkestek beti eman izan diote alde handia NaBairi eta orain ere hala da; argitaratzen ari dena egiaztatuko balitz, abertzaletasunak Nafarroan inoiz izan duen emaitzik onena jasoko luke egungo bi eskaintzekin.

Alderdi nagusienei begira, EAJ da ondoen ateratzen dena inkestetan, eta berriz ere azpimarratzekoa da Bizkaian duen nagusitasun handia. Gipuzkoan, aldiz, Bildu eta EAJren lehia azken honen alde lerratzen da inkestetan. PSEren eta PPren arteko borrokan, lehenak pixka bat behera egiten du eta bigarrenak eutsi. UPNren eta PPren arteko lehian, ez dirudi bigarrenak pentsatu beste higatzen duenik Yolanda Barcinaren alderdia.

ALDERDI txikientzat ez da berri onik inkestetan. Nafarroan, aspaldi iragartzen ari den CDNren desager-

pena emango litzateke azkenean eta Ezker Batua ere lehenbiziz Legebiltzarretik kanpo geratuko bide da, oraingoan Batzarrekin batera –Ezkerra koalizioan– aurkeztuta ere. EAEn Aralar eta Ezker Batuak ordezkartza gal lezakete Batzar Nagusietan eta hiriburuetako udaletan.

EAEn, hala ere, hauteskunde hauen amaierak berehala jarriko gaitu 2013 Eusko Legebiltzarreko hauteskundeei begira, besteak beste, PSE-PPren egungo gehien-goia egiazki zer den islatuko dutelako. Eta hauteskunde aurreratuak eskatuko dira, seguruenik lehen minututik. Raxoi Zapaterorekin bezala arituko da Urkullu Lopezekin, erruki barik. Edo batek daki, hauteskunde ondorengo aliantza berriek, giro aldaketa ekar baitezakete EAJren eta PSEren arteko harremanean.

Hauteskunde kanpaina bake-tsua izaten ari da, baina dena ez dago konpondua normalizazioaren ikuspegitik: Sortu legeztatu behar da, ilegalizazio kontuak betiko baztertu eta normalizazio politikoa ekarriko duen bake prozesua abiarazi. Ez, asko falta da, baina azken 30 urteetako hauteskunde bake-tsuenen aurrean gaude, eta hori itzelezko urratsa da.

PELLO ZUBIRIA

Garbiketa lanetan ari diren emakume ikusezin horiek

Florence Aubenas kazetari frantsesak hogeitaz bisitatuak zituen gerra guneak, komisaldegia, auzitegia, greba luzean zeuden lantokiak, 2005ean gerrillariekin Iraken bahituta eduki zuten bost hilabetez... Baina 2009an eskolarik gabeko 48 urteko andre bihurtu eta lan bila hasi zen. Sei hilabetetan ohartu zen ezezagunena etxean bertan daukagula.

TELEBISTAN LEGEZ EGUNKARIETAN, denetan mila bider ikusia zen Florence Aubenas emakume kazetariaren aurpegia. 157 egun egin zituen gatu Irakeko matxinoen eskutik, Frantzia osoa hari begira. Inguruko ei jakinarazi zientean asmoa —lanik txarrenak eginez bizi ezinik dabil-tzan emakumeetako izatea hilabete batzuek— izena eta itxura aldatzeko gomendatu zioten, burua soildu, arropa bitxiak jantzi... Alderantzizko a eginda asmatu zuen: benetako izen eta itxuraz enplegu bila hasi zelarik bulego batetik bestera, laneko elkarriketa hemen eta ikastaro laburra hor, ez zuen inork ezagutu.

Iazko udaberrian plazaratu zuen liburua Aubenasek. *Quai de Ouistreham* bataiatu zuen, moila hartatik ateratzen delako Ingalaterrako ferrya, lantoki izan zuena. Oihartzun handia eduki zuen Frantzian. Orain ingelesez eman dute, *Night Cleaner* (Gaueko garbitzaile) izenburuz. Gaztelaniaz ez da zabaldu.

Libération egunkarian ibili ostean *Nouvel Observateur* astekarian ari den Aubenas 2009ko otsailean Normandiako Caen herrian aurkeztu zen *Pôle emploi* bulegoan.

Jatorrizko izen deiturak eman zituen eta asmatutako egoera berria kontatu: 48 urteko emakumea, bi haurren ama, azken urteetan lanik egin ez duena senarraren soldatare-

kin aise bizi zirelako, senarragandik apartatu berria, batxilergoaz gain beste titulaziorik gabea. “Edozein lan egiteko prest nago” esan omen zion lan eskaerak biltzen zituenari eta honek erantzun: “Horixe bera diote denek”. Hortik aurrerako pena eta nekeekin osatu du liburua. Berak bezala milaka emakume gehiagok sinatu zezaketen.

Sei hilabete aski izan zituen lanbide prekarioetan odolustan diren emakumeen ibilerak ondo ezagutzeko. “Hasi eta ordu laurdenerako nire belaunak puztu ziren eta besoak txingurritu”, aitortzen du. Baina ez lanpostu alerik aurkitzeko. Lana? Ordu mordoxka bat goizean goiz eta iluntzean berandu sakabanatuta, Ingalaterrara doan ferryan, kanpinetan, bulegoetan.

Kazetariak helburutzat zeraman larruazalean frogatzea nola bizi diren gaur frantziar ahulenak, hilabetea 700 euroekin zeharkatu behar dutenak. Hilean 348 euro kostatzen den apartamentu ñimiñoa alokatu zuen. Baina sei hilabetetan beltz eginda irabazitakoarekin ez zuen lortuko gastu guztiak pagatzerik. Eskerrak gorderik zituela Outreau kasuaz —pederastia salaketetan oinarritutako gertakizun famatua, epailearen hutsegite batekin borobildu zena— idatzitako liburuaren etekinak.

Caen hiria, 120.000 biztanle,

Argazki txikiak Florence Aubenas *Quai de Ouistreham* liburua aurkeztzen. Iraken bahituta egon zen kazetari honek aitortua du ez balitz gerra hartan zaildu nekez gaudituko zituela garbiketa laneko sei hilabete gogor haiek, prekarietatean ari diren emakumeen lan baldintza eskandalagarriak: kontratu eta lanpostu labur ugari, egunean zehar leku askotara mugitze ordainik gabeko joan-etorriak, soldata murrizak, presioak, garaiz bukatze-ira iritsi ezina, segurtasunik eza... eta inguruko herritar eta langileen begietan ikusezinak izatea. Lankideen arteko miseriak baina baita solidaritatea ere, eroraldietan zutitzen lagunduz, autoa utziz, bukatu ezineko tarea osatuz. Argazki handia Presti-Travaux garbiketa lanetako konpainiak erakusten du bere gunean, aurpegiak gabeko oso irudi egokia behar-gin ikusezinen zerbitzuak eskaintzeko.

industriagune izana da. Bigarren Mundu Gerran arras suntsitua izan baitzen, De Gaulle jeneralak aparteko begirunez lagundu zuen. Azken urteotan industria gehiena galdu du, manufaktura herrialde txiroagoetara deslokalizaturik.

Horrelako lekuetan nabarmenagoak dira azken hiru hamarkadotan langileen bizi baldintzetan gertatu diren aldaketak. Enpresa pribatuek bezala publikoek, baita instituzioek ere, funtzio osoak *externalizatu* dituzte, azpikontratei emateko. Garbiketa, esaterako. Zein enpresak —edo zein udalek— dauzka gaur garbitzaileak bere langiletzat? Ez Caenen, ez Lasarte-Orian.

Egun osoa edo zain edo lasterka

Lan behar gorrian dabilen emakumeak enplegu agentzietara joko du, eta hor ohartuko da, lehen ezustekoa, “lana nahi izatea” ez dela aski. Ehunka ari dira bera bezala, curriculum eguneratu behar du, ikastaroak egin, nagusi izan litekeenari motibatua dela erakutsi. Ahalegin guztiok kobratu gabe burutu beharko ditu.

Hori gauditurik, eskainiko zaizkion lanpostuak finkoak ez izatea ez da arazo larriena: “xerratan” bezala zatikatuta sartu beharko ditu orduak, ale batzuk hemen, bestetzuk han urrutu. Denetara hilabetean 700 euro irabaztera ez iristeko.



Goizean goizetik hasita iluntzean oso berandu arte batera eta bestera mugitu ahal izateko, emakume horrek beharko du norbaitek eramatea edo autoa lagatzea. Zintzilik geratzeko arrisku galantarekin. “Bat-batean ohartu nintzen zein hauskorra zen nire bizimodu berria eta sentitu nuen edozeren eta edonoren menpe nengoela” idatzi du Aubenasak.

Lantegi prekariootan denbora ere bestelakoa da. Beti itxaroten, kontratazio elkarriketa baterako, edo autobusaren zain, edo bidaian, edo besterik gabe atzeratuta doazen enplegatu “ofizialak” noiz joango. Ordainik gabeko ordu ugari ordu ordainduzko ale batzuk egiteko.

Lanordua bera txikiea bezalakoa

da, luzeago gerta daiteke, ugazabari komeni bazaio: “Aurrekoak 2 ordutan garbitzen zuen bulego hau, baina gure kalkuluen arabera zuk 1,5ean egin dezakezu”, esango dio ugazabak, nahiz eta gero Aubenasak berak ere bi beharko dituen zeregina amaitzeko... 30 minutu gutxiago kobratuta. Garbitzaileak sarritan taldeka ari baitira, erritmo horiekin ika-mikak gertatzea ez da harrizkekoa.

Aubenas, ordea, bereziki txokatu du langile “normalen” eta herritarren sentsibilitaterik ezak. “Garbitzaileari ikusezina dela esatea kunplimendua dela uste dute askok. Zurekin oso gustura gaude, ez zaitugu ikusi ere egiten”.

Pasadizo krudel hau kontatua du liburuan: behin Aubenas sartu zen

bulegoak egunero bezala garbitzera behargin guztiek alde egindakoan. Bikote bat geratu zen eta larrutan hasi ziren bertan. Florence erratza pasatzen ari zen haien aldamenean baina bi haiek berean segitu zuten garbitzailea beste traste bat gehiago bailitzan, erratzaren osagai bat gehiago. Ikusezina bihurtua zen.

Ingelesezt plazaratu berria den liburuaren iruzkina egitean, *The Guardian* egunkarian Madeleine Bunting-ek alderatu du Florence Aubenasena 1937an George Orwell-ek plazaratutako *The Road to Wigan Pier*-ekin. Orwellena salatzailea zen, bestelako gizartea aldarrikatzen zuen. Aubenasena gordinago eta ilunagoa iruditua zaio. Langileok etsituago bizi dira gaur. “Markatu, umiliatu, jazarri eta zanpatu egiten dituzte hainbeste aholkulari, prestatzaile, ugazaba eta ekipobururen artean (...) Krudela da pertsona izatea galtze hori, etengabe pertsonaren indibidualtasuna sustatzen duten kultura honetan”.


Oraindik komunikabideetan estresa exekutiboaren eta ardura handiak dituztenen arazotzat jotzen da. Aldiz, funtsean estresean bizi direnak eta osasuna galtzen dutenak lanpostu eskasotan ari diren behargin ugariak dira, emakumeak sarri.

Florence Aubenas-ek liburuaren aurkezpenetako batzuetan salatu du gainerako langileok barneratuta daukagula garbitzaileen ikusezintasuna. “Nork erabaki du bulegoak hutsik daudenean jardun behar dutela haiek? Ezin dute garbiketa egin gu lanean ari garen bitartean? Eta instituzioek, ezin dituzte hurbil dauden egoitzen garbiketak multzoka antolatuz?”. Ikusten ez ditugunez... ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Joxe Iriarte, *Bikila*

Antropozemoa

Ramón Fernandez Duranek bi liburu hauek utzi dizkigu testamendu gisa: *Kapitalismo globalaren porrota* eta *Antropozemoa*. Borrokalari eta pentsalari nekazinararen azken ekarpenak bikainak –eta zoliak– dira bizi dugun mundu petral honen nondik norakoak hobeto ulertzeko. Metodologia zorrotz eta zehatz erabiliz, Ramónek erakusten digu kapitalismo globalak talka egin duela biosferarekin. Zuzen-zuzenean goazela amildegira, kapitalismoa ez badugu beste eredu mota batez ordezkatzeko.

Datuak hor daude ikusi nahi duenarentzat: negutegi efektua jadanik ukazina da. Hala ere, CO₂ isurketa hazten ari da etengabe. Azken ehun urteetan aurreko gizaldi guztian baino energia gehiago xahutu da; biomasaren %40 ustiatu da; bioaniztasunaren %30 galdu da; ur emarien kutsadura larria izaki. Honen guztiaren atzean, metropoli urbanoen zabalkundea, nekazaritza intentsiboaren hazkundea eta industriaren garapen jasanezina dago.

Askok katastrofistatzat edo muturreko iritzizat joko dute honako hau. Nik ez. Izan ere, estreinako alarma deiak egin zirenetik 30 urte galdu dira alfer-alferrik. Eta, zoritxarrez, mundua gobernatzen dutenen aldetik ez da ikusten norabidea aldatzeko zantzurik. Stockholmeko eta Cancuneko Klimaren goi-bileretan gertatutakoa tamalgarria izan bazen, istripu nuklearrek marka guztiak gainditu dituzte.

“Ez omen du CO₂ isurtzen” aitzakia (zentralen eraikuntzan, erauzketa lanetan eta uranioaren produkzioan sortzen den CO₂ kopurua ez baitute aipatzen) energia nuklearren aldeko ahotsak indartsuago eta ozenago entzun dira azken urteetan. Bazirudien nuklearren aldekoak gainditzeko ari zirela Txernobyleko sindromea. Izan ere, harro eta itsu esaten ziguten, Txernobylekoa burokrazia inkompetente baten ondorioa izan zela eta ezinezkoa zela antzekorik gertatzea herrialde garatuetan, esate baterako, Japonian. Baina gertatu da. Eta astotik jaitsi beharrean, energia nuklearraren berezko arriskua onartu beharrean, naturak sorturiko ezuste bati (aurretik ezin esan



DANI BLANCO

dena omen) leporatzen diote errua! Amerikako Estatu Batuetan egunotan izandako haize erauntsiekin ere izan dira arazoak zenbait zentral nuklearretan.

Giza akatsak direla edo naturaren ezustekoak direla (edo atentaturen bat), kontua da, istripuak estatistikoki ekidin ezinak direla, are, kapitalismoak krisia nola nuklearrak istripu arriskua hala. Biek hala biek daramate hondamendia errailetan!

Orduan, zergatik setakeria kriminal hori? Energia nuklearra inoiz ez da izan, ezta izango, energia krisia gainditzeko adina, gaur egun ere, elektrizitatearen %13,4 besterik ez baitu ematen. Beraz, nuklearra erraz ordezkatu daitekeen energia mota da. Kontua da horretarako borondatea izatea. Baina ez dago, azken finean, eta ez dago “bakearen aldeko atomoen” leloa militar arlokoa ezkutatze sortu zelako. Uranioaren produkzioa armagintza atomikoarekin lotua dagoelako azken finean (egungo kon-



Antropozemoak bizi gaitu. Ezkor naiz. Baina ez nago etsia.

Walter Benjaminek zioen ‘ezkortasuna antolatu egin behar dela’.

Horretan nago ni. Aspaldi konbentzitu nintzen ezkortasun aktiboa dela baikortasuna garatzeko modurik inteligenteena




fliktoetan uranio pobretuarekin eginiko munizio erradiaktiboa erabiltzen da). Ahaztu gabe, nuklear lobbyak duen indarra. Holandan eta Alemanian salbu, inon ez dira ausartu luzamen baimena eman dieten zentraleri zerga gogor bat ezartzea, bide horretatik lortutako diruarekin energia berriztatzailea bultzatzeko asmoz.

Antropozemoak bizi gaitu. Ezkor naiz. Baina ez nago etsia. Walter Benjaminek zioen “ezkortasuna antolatu egin behar dela”. Horretan nago ni. Aspaldi konbentzitu nintzen ezkortasun aktiboa dela (*Haserretu gaitzen!*) baikortasuna garatzeko modurik inteligenteena. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA
www.ibernalorural.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Esait

5 kamiseta
opari

Oiartzun GIPUZKOA
www.esait.org

3



Gipuzkoa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparaldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

4



Txuma Murugarren B Aldeko Kantuak

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2275. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Iñaki Campos Hernandez (Iruñea)

TARPOON URPEKARITZA

- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

INGURU ABENTURA Eskalada

- Etumeta Euskaltegia (Usurbil)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Joxe Anjel Antxia Bolinaga (Aretxabaleta)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)

ARTIUM

- Pake Garzia Konde (Elgoibar)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Juanpe Soloeta Ibañez (Durango)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
© 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

